


Klima-aldaketaren INPAKTUA GENERO-EKITATEAN, KEBEMER DEPARTAMENTUAN (SENEGAL)



Si!

Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional

T 944 792 258
solidaridad@sol-inter.org
www.solidaridadsi.org

e

SARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



ODSeando África

Avanzando por los Objetivos de Desarrollo
Sostenible de las mujeres en África



Argitaratzailea:

Nazioarteko Elkartasuna – Solidaridad Internacional

Talde eragilea:

FADEC - Nord (Saliou Dieye eta Nogaye Niang Mbengue), Senegalgo Emakume Legelarien Elkartea (Aminata Thiobane eta Oulimate Kébér), Kebemerreko Emakume Aktibisten Sarea (Codou Fall eta Diamé Kémeltou Tambédou), Nazioarteko Elkartasuna – Solidaridad Internacional (Makhtar Ndiaye, Zaira Carolina Cuervo eta Irene Ortiz de Urbina).

Ikertzaile lantaldea:

Laurence Thieux
Jesús García-Luengos
Juan Aja
Abey Sane

Finantzaketa:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
Bizkaiako Foru Aldundia

2023ko maiatza

Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-
LanEratorririkGabe lizentziapean dago




AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	p5
2	METODOLOGIA	p8
3	TESTUINGURU INSTITUZIONALA ETA NORMATIBOA	
	3.1 Gobernantza klimatikoa	p12
	3.2 Genero-ekitatea	p13
4	KLIMA-ALDAKETA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK SENEGALEN	p15
5	EKOIZPEN-IKUSPEGI BERRIAK: AGROEKOLOGIA	p19
6	AZTERLANAREN EMAITZAK.....	p21
7	NEURRIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK, KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO ETA HARI EGOKITZEKO	p29
8	ORIENTABIDEAK, INGURUMEN- ETA GENERO-IKUSPEGI INTEGRATUA TXERTATZEARI BURUZKOAK	p32
9	ONDORIOAK.....	p36

ERANSKINAK

I.	Eranskina - Azterlanaren faseak eta tresna metodologikoak	p39
II.	Eranskina - Bibliografia	p42
III.	Eranskina - Elkarrizketak eta foku-taldeak	p46
IV.	Eranskina - EJP inkestaren emaitzak	p48
V.	Eranskina - Kebemerren ingurumenerako eskubidea eta genero ekitatea sustatzeko jardunbide egokien eta arintze neurrien bilduma	p61



LABURPEN EXEKUTIBOA

Klima-aldaketaren (aurrerantzean, KA) bizkortzea eta horrek pertsona gehien bizibideetan dituen ondorioak bereziki larriak dira Saharaz hegoaldeko Afrikan, alegia, berotegi-efektuko gasen %4 inguru bakarrik isurtzen duen eskualdean. KAren inpaktua gehien pairatzen ari den munduko eskualdeetako bat da Sahel, Senegalgo iparraldea barne hartzen duena. NESI eta FADEC antolakundeek identifikatutako premia betetzera dator txosten hau, alegia, Senegalgo Sahel inguruan emakume eta gizonen oinarrizko eskubideetan eta genero-ekitatean KAK duen eraginaren diagnostiko espezifikoak edukitzeko beharrari, Kebemer departamentuan egindako kasu-azterketa batetik abiatuta.

Azterlanean hainbat orientabide azaltzen dira, garapen iraunkorreko etorkizuneko esku-hartzeetan ingurumen- eta genero-ikuspegi integratua txertatzeari buruzkoak.

Honako ondorio nagusiak atera dira azterlanetik:

Kebemer departamentuan (Senegal) defizit oso handiak daude azpiegituretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta bizi-baliabideetan. Halaber, nabarmen hobetu daitezke erakundeen eta Administrazio Publikoaren ahalmena. Zaurgarritasun handiko testuinguru honetan, COVID-19aren pandemiak markatua, KA inpaktu negatibo ugari izaten ari da.

Landa-eremuko emakume eta neskek (eskolatze-tasa txikiak

dituztenak) pairatu dituzte KAren kalterik handienak. Emakumeak arduratzen dira etxeaz, janaria prestatzeko ura eta egurra biltzeaz eta seme-alaben hezkuntzaz. Gainera, nekazaritza- eta arrantza-sektorean lan egiten dute, eta diru-sarrera osagarriak sortzen dituzte beste jarduera batzuen bidez. Eragin nabarmena dute emakumeengan KAren lotutako fenomenoek eta muturreko aldaketa klimatologikoen, eta horiek daukaten eragin negatibo gero eta handiagoak nekazaritza- eta arrantza-baliabideen ekoizpenean, eta oro har, bizi-baliabideetan —aurrera doan landa-eremuetako exodoarekin—. Emakumeek eskaintzen diete denbora eta ahalegin gehien (gero eta tenperatura altuagoak jasanez) eguneroko lanei eta baliabide naturalak eta ekonomikoak lortzeari, oso muturreko bizi-baldintzak dituzten testuinguruan. Azken urteotako aurrerapen legalak gorabehera, arau eta ohitura jakin batzuk (herentziari, lurra eskuratzeari eta finantzaketari dagokienez, adibidez) kalte egiten diete genero-berdintasun handiagoari eta emakumeen oinarrizko eskubide batzuei (hezkuntzarako, osasunerako, elikadurarako, ura eta saneamendua eskuratzeko eta ingurumen osasungarria izateko eskubidea).

Kebemergo emakumeak erabat jakitun dira KAK ingurumenean eta beren bizitzetan dituen ondorioez, eta arintze- eta egokitze-neurriak hartzearen premia eta garrantziak. Horien artean, azpimarratzekoa da ganaduarentzako askotariko elikagai-motak sortzen hasi direla (nekazaritzako eta basogintzako azpiproduktuak)

larreen gabeziara egokitzeko; abeltzaintzako ustiategi erresilienteagoak garatu dira. Hona hemen identifikatutako beste jardunbide egoki batzuk: biopestizidak ekoiztea, eguzki-plakak erabiltzea ureztatze-makinen funtzionamendurako, landareen eta animalien baliabide genetikoak kontserbatzea eta modu jasangarrian erabiltzea, basoberritze praktiken erabilera anitzak eta nekazaritzako eta baso-larregintzako sistemetarako trantsizioa, eta baratze-produktuen ekoizpena dibertsifikatzea merkatu berriak bilatzeko. Era berean, aipagarria da FADECek eta NESIk emakume-taldeei emandako laguntza, zerealak eta bestelako produktuak eraldatzeko makinen eta unitateen bidez; alfabetatze funtzionala, FADECek ezarritako hainbat proiektutan egindakoa; eta tokiko elkarte-sarea indartzea, emakumeen eskubideak babestera eta defendatzera bideratuta.

KAren ondorioez jakitun izan arren, azterlanean parte hartu zuten emakume eta gizonen **ez zuten, inola ere, loturarik ezarri ingurumen osasungarria izateko eskubidearen eta horrek oinarrizko beste eskubideetan duen eraginaren artean** (elikadura eta nutrizio orekatua, ura eta saneamendua eskuratzeko, osasuna, hezkuntza). Hori, kontzientzia hartzeari eta ekintzei dagokienez, oso alderdi garrantzitsua da. Bestalde, ezjakintasun handia dago KAren kontzeptuari buruzko azterlanaren xede diren tokiko komunitateetan (zertan datzan, zeintzuk diren kasuak eta nortzuk diren erantzuleak).

Kebemerren genero-berdintasunaren eta emakumeen eskubideen

arloko edozein aurrerapen oso baldintzatuta dago gizonen egitura patriarkal oso kontserbadore batengatik. **Hainbat faktore ekonomiko, sozial, kultural eta erlijiosok funtsezko gaietan eragiten dute**, hala nola familia-plangintzan, genero-indarkerian eta erresilientzia komunitarioan. Hain zuzen ere, emakumeen aldarrikapen-diskurtsoa autonomia ekonomiko handiagoa lortzera bideratuta dago argi eta garbi, eta bigarren mailan uzten du gizon eta emakumeen arteko berdintasun handiagoa.


KAk gero eta eragin handiagoa duenez komunitateetan, emakumeetan eta haien eskubideetan, gero eta beharrezkoagoa da **helburu bikoitza duten ekintzak identifikatzea eta antolatzea**: (i) KAra egokitzea eta sistema erresilienteak sortzea; eta (ii) genero-desparekotasunak murriztea eta emakumeen eskubideak eta ahalduntzea sustatzea. Funtsezkoak dira ezagutza eta kontzientzia handiagoa sortzen duten ekintza guztiak, maila politikoan, erakundeetan, gizarte zibilean zein tokiko komunitateetan. Ekintza horietan hasieratik txertatu behar dira haien onuradunak, baita gauzatzean eta jarraipena egin bitartean ere.

Funtsezko beste gai bat da eremu honetan egiten diren proiektuak hainbat ekintzaz osatuta egotea. **Ekintza horiek, alde batetik, familien ongizatea hobetu behar dute** (adibidez, elikagai nutritiboen bidez), eta, bestetik, emakumeen inklusio soziala eta finantzarioa hobetu behar dute, baita haien ekoizpen-baliabide jasangarriak ere (baratze-ekoizpenerako partzelak handitzea, ganaduarentzako elikagaiak ekoiztea, oilaskoak haztea).

Funtsezkoa da ere **informazioa eskuratzea klimaren bilakaerari eta aldaketei buruz**, nekazaritza-praktikak (ereitea) egokitzeko, eta hori posible da smartphonerako aplikazioei esker, baina Internetarako

sarbidea erronka da, oraindik ere, landa-eremuko emakume gehienentzat. Beraz, beharrezkoa da informazioa eskuratzeko bideak hobetzea, eta funtsezko gaia da alerta goiztiarreko mekanismoena.

Eragin politikoa ere funtsezko gaia da, esku-hartzean inplikatur KAre aurkako borrokaren eta genero-berdintasunaren esparruan eskumenak dituzten lider politikoak nahiz maila nazionaleko eta tokiko agintariak. Horrez gain, funtsezkoa da: (i) aliantzak artikulatzea garapen jasangarriari, ingurumenari eta generoari buruzko gaietan lan egiten duten antolakundeen artean; (ii) emakume eta gizonentzako prestakuntza eta sentsibilizazioa praktika agroekologiko egokiei buruz; (iii) funtzio anitzeko basoberritze-prozesuak babestea eta trantsizioa egitea nekazaritzako eta baso-larregintzako sistemetara; eta (iv) kostu txikiko sistemak edo teknologiak erabiltzea, aldi berean ustiapen-eredu jasangarrietarako trantsizioa bizkortzeko eta ingurumenaren gaineko praktika kaltegarrien inpaktua murrizteko, hala nola basogabetzea.



Klima-aldaketaren **INPAKTUA GENERO-EKITATEAN, KEBEMER DEPARTAMENTUAN (SENEGAL)**

01. SARRERA

01. SARRERA

Klima-aldaketaren (aurrerantzean, KA) bizkortzea eta horrek jende gehienaren bizibideetan dituen ondorioak bereziki larriak dira Saharaz hegoaldeko Afrikan, alegia, berotegi-efektuko gasen %4 inguru soilik isurtzen dituen eskualdean. KAren inpaktua gehien pairatzen ari den munduko eskualdeetako bat da Sahel, Senegalgo iparraldea barne hartzen duena⁽¹⁾.

Parisko Hitzarmenaren arabera (2015), munduko herrialde gehienek konpromisoa hartu zuten planetaren tenperaturaren igoera 2 °C-tik behera jaisteko industriaurreko mailarekin alderatuta, eta 1,5 °C-ra mugatzeko ahaleginarekin jarraitzeko. Hori lortzeko, 2030. urterako emisio globalak erdira murriztu behar dira, eta 2050. urterako karbono isuria neutroa izan behar da. Herrialde guztietako gobernuek funtsezko rola dute eraldaketa hori gauzatu ahal izateko, jendartearen eta ekonomiaren alderdi guztietan jardutea eskatzen duena.

Berriki egindako COP 27 konferentzian (2022) berriro azpimarratu zen KAren aurkako borrokaren premia, eta distantzia nabarmena

zegoela nazioartean hartutako konpromisoen eta gizateriarentzako ezinbesteko premia larrien artean⁽²⁾. Bistakoa denez, munduko herrialde guztiak erantzule diren arren, guztiek ez dute erantzukizun-maila bera. Txina, AEB, India, Errusia eta Japonia dira isurketa gehien egiten dituzten munduko bost herrialde nagusiak (1.000 bilioi tonatik gora bakoitzak), eta munduko emisio guztien %62,9 isurtzen dute⁽³⁾.

COVID-19aren pandemiak eta Ukrainako gerrak markatutako nazioarteko testuinguruak krisi energetiko handia eta lehengaien prezioen inflazio nabarmena eragin dute. Ondorioz, bizi-baldintzak are gehiago zaildu dira zerealen inportazioarekiko mendekotasun handia duten herrialdeetan, eta Senegalen kasuan %70ekoa da. KAren eragin gero eta handiagoak eta dimentsio anitzeko krisi globalaren eraginak, desperekotasun sozioekonomiko gero eta nabarmenagoak dituen mundu honetan, izugarri larriagotzen ari dira elikadura- eta nutrizio-segurtasun eza eskualde eta herrialde askotan, bereziki Afrikan.

Afrikako herrialde askotan, Senegalen adibidez, gero eta ohikoagoak

dira muturreko ingurumen-fenomenoak (tenperaturaren igoera, lurzoruaren higadura, prezipitazioen intentsitatea eta eskasia), eta oso modu larrian eragiten diote nekazaritza-ekoizpenari; biztanleriaren zati handi bat bizi da ekoizpen horretatik, eta gero eta gehiago higatzen ari da auren egonkortasun sozial eta ekonomiko hauskorra.

Saharaz hegoaldeko Afrikan, nekazaritzak pisu ekonomiko nagusia izaten jarraitzen du, BPGaren zati esanguratsua hartuz (%16 inguru Senegalen). Gainera, sektore estrategikoa da, eta haren kudeaketaren mende dago herrialde horien elikadura-burujabetza. Bi eredu oso desberdin daude: batetik, nekazaritza-industriako sektoreak lur emankorreko azalera handiak hartzen ditu, ur-baliabide asko behar ditu eta zuzeneko kanpo-inbertsio garrantzitsuak hartzen ditu; eta, bestetik, iraupeneko nekazaritza, modernizatu gabea, KAren ondorioekiko ahulagoa eta enpleguari dagokionez jarduera-sektore nagusia dena eta rol sozial eta ekonomiko funtsezkoa duena. Senegalen kasuan, biztanleria aktiboaren %52 nekazaritzan aritzen da, eta gehien-gehienak (%90) familia-ustiategietan. Azken

(1) Afrikako iparraldeko eremu ekoklimatiko eta biogeografiko bat da Sahel. Iparraldean, Saharako basamortua du mugakide, eta hegoaldean, berriz, Sudango sabana; bien arteko trantsizio-eremua da. Mendebalde-ekialderantz, Ozeano Atlantikotik Itsaso Gorriraino hedatzen da, kontinente osoa zeharkatuz. Hauek dira Sahel eskualdean dauden herrialdeak (eta bakoitzari dagozkion eremuak): Mauritaniako hegoaldea, Senegalgo iparraldea, Maliko erdialdea, Burkina Fasoko iparraldea, Nigerreko hegoaldea, Nigeriako iparraldea, Txadeko eta Sudango erdialdea, Eritrea eta Etiopiako iparraldea.

(2) Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak mezu irmoa helarazi zuen lehenengo osoko bilkuran: "Gizateriak aukeratu egin behar du: elkarlana ala hil. Elkartasun Klimatikoko Ituna, ala Itun Kolektibo Suizida" <https://news.un.org/es/story/2022/11/1516697>

(3) 2022ko CO₂ emisioen egoerari buruzko txostena. Empresa y Clima fundazioa, 2022.


horiek iraupeneko nekazaritza egiten dute⁽⁴⁾. Nekazaritza-sektoreko eskulanaren %46 inguru emakumeak dira⁽⁵⁾.

Modu paraleloan egin dira askotan klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko borrokaren agendak. Nahiz eta ingurumenari buruzko nazioarteko tratatuak (adibidez, Biodibertsitateari eta desertifikazioaren aurkako borrokari buruzko Tratatuak) onartzen duten emakumearen rola funtsezkoa dela ekosistemak eta baliabide naturalak babesteko, praktikan, bi agenden arteko lotura azalekoa izaten da.

1995eko Pekingo Munduko Konferentziak edo 2002ko Johannesburgoko Munduko Goi-bilerak ere emakumearen rol hori aipatzen dute, baina estrategia edo politika zehatzetan islatu gabe. Bestelako testuek, esaterako Afrika Mendebaldeko Estatuaren Ekonomia Erkidegoaren (CEDEAO) 2012ko Akta Osagarriak, Mendebaldeko Afrikako garapen iraunkorrerako emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasunari buruzkoak, landu egiten dute emakumeak ingurumenaren zaintzan duen rola, baina asmoen adierazpen hutsera mugatzen dira. Senegalgo Genero Berdintasunerako eta Ekitaterako Estrategia Nazionalak (2016-2026) behin baino ez du aipatzen klima-aldaketaren gaia.

Mundu mailan, gaur egungo ekoizpen-ereduaren porrotak –

elikadura- eta nutrizio-segurtasunaren arazoa konpondu ez duena eta ingurumena degradatu duena— mahai gainean jartzen du nekazaritzako ezagutza eta praktika tradizionalak berreskuratze eta sustatzeko beharra, baztertuak edo erabiltzeari utzitakoak. Praktika endogeno horiek inspirazio-iturri izaten ari dira eredu agroekologiko berrientzako, eta, gainera, berrikuntza tekniko eta zientifikoak dakartzate KAren erronkei aurre egiteko. Erronka gakoaren artean daude laboreen erresistentzia hobetzea eta KAren inpaktuei aurre egiteko beste labore sendoagoak sartzeari⁽⁶⁾. Emakumeek funtsezko rola izango dute gai horietan guztietan.



(4) Hub FIDA Afrique de l'Ouest (2020), L'avenir de la agriculture au Sénégal, 2030-2063.

(5) Agence National de la Statistique et de la Démographie - ANSD, Sénégal, 2013.

(6) Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldearen (IPCC) azken lanen arabera, berotegi-efektuko gasen munduko isurketen %37ren erantzuleak dira nekazaritza eta elikadura-sistemak, basogabetzea barne (IPCC, 2022). Aldi berean, nekazaritza-lurrak, landareei eta lurzoruari esker, karbono-hustubide garrantzitsuak dira, berotegi-efektuko gasen isurketa guztien %29 hartzen baitute.

02. METODOLOGIA

02. METODOLOGIA

Garapen Komunitarioko Elkarteen Federazioa (FADEC) eta Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional (NESI) entitate kideek bi hamarkada daramate lankidetzaren proiektu ugari garatzen Kebemer departamentuan (Senegal), progresiboki gehituz jardunbide onak eta ikasitakoak.

Bide horri jarraituz, antolakunde horiek identifikatutako premia betetzera dator txosten hau, alegia, Senegalgo Sahel inguruan emakume eta gizonen oinarritzko eskubideetan eta genero-ekitatean KAK duen eraginaren diagnostiko espezifikoa edukitzeko beharrari, Kebemer departamentuan egindako kasu-azterketa batetik abiatuta.

Azterlanaren diseinuak, baita datuak biltzeko eta lantzeko prozesuak ere, ikuspegi parte-hartzailea eta inklusiboa izan du. Horretarako, azterlaneko aholkulari-taldeak jarraitutako metodologia Ikerketa Ekintza Parte-hartzailean (IEP) oinarritu da. Metodologia horren oinarria ezagutza partekatua sortzea eta ezagutza hori eraldaketa-ekintzetan erabiltzea da. Inplikaturako eragile guztien parte-hartzea funtsezkoa izan da azterlanaren helburuak lortzeko, eta aukera

eman du hainbat ikuspegi txertatzeko, modu zabalean partekatzeko ezagutzak, praktikak eta estrategiak lantzeko.

Lanerako metodologia lantzerakoan, aholkularitza-taldeak kontuan hartu du ere ikuspegi ekofeminista, nahiz eta, IEP metodologiari dagokionez, oso zaila den Kemer Departamentuko tokiko testuinguruan praktikara eramatea; izan ere, oso kontserbadorea da eta egitura patriarkal oso zurrunka daude.

Ekofeminismoak askotariko garapen teorikoak eta mobilizazio kolektiboak biltzen ditu⁽⁷⁾. Ikuspegi honen abiapuntua emakumeen eta naturaren aurkako menderatze bikoitzaren ideia nagusia da. Hala, aztertu egiten du zer lotura duten, batetik, natura menderatzeko gizakion saiakerak eta ingurumenaren degradazioak, eta, bestetik, emakumeak menderakuntzara baztertzen dituzten egiturazko desparekotasunek. Ikuspegi ekofeministek garatu duten beste alderdi bat da zalantzan jarri behar direla naturaren eta emakumeen menderakuntzaren jatorrian dauden garapen ekonomiko eta sozialeko ereduak.


Azterlanaren hasierako fasean, aztertu egin ziren hainbat iturri bibliografiko eta FADECek eta NESIk elkarlanean egindako proiektuei buruz zegoen dokumentazio guztia, eta Lan-plana eta Metodologia egin ziren. Lantaldeko lau ikertzaileetako hiruk landa-lana egin zuten; hainbat elkarrizketa eta bilera, zenbait foku-talde eta 41 pertsonari egindako inkesta bat, batez ere Kebemer departamentuko tokiko komunitateetako emakumeei.

Metodologia horri esker, espazioak sortu ziren tokiko hainbat elkartek eta emakume ugari parte hartzeko, foku-taldeen bidez. Gizonekin ere topaketak eta foku-taldeak egin ziren. FADECeko lantaldea erabat inplikaturako egon da inkesta egiten eta Kebemer departamentuko herrietan informazioa biltzeko antolatutako jardueretan.

Azterlan honen egileek bereziki eskertu nahi diote FADECeko lantalde osoari landa-lanaren fasean eskainitako laguntza. I. eranskinean, fasean eta erabilitako metodologia-tresnen zerrenda zehatza dago; II. eranskinean, kontsultatutako bibliografia; eta III. eranskinean, egindako elkarrizketak eta foku-taldeak.

(7) El eco-feminismo surge en la década de 1970, coincidiendo con los primeros informes de alerta sobre las devastadoras consecuencias del Antropoceno (informe Meadows) en el ecosistema y los efectos negativos que conducen al cambio climático en todas partes y que ponen en peligro los medios de vida de muchas regiones y localidades del mundo. Se articuló durante esta década en torno a numerosas movilizaciones contra los desastres ecológicos y se presentó entonces como una fuerza de protesta social.

Txosten honen egitura bi zatitan banatzen da. Lehenengo zatian, aztergai dira testuinguru instituzionala eta normatiboa, klima-aldaketari eta emakumeen eskubideei buruzko gai orokorrak, eta agroekologiari buruzko atal bat (3. ataletik 5. atalera). Bigarren zatian, azterlanaren emaitza nagusiak, identifikatutako jardunbide egokiak eta etorkizunean esku-hartzeko orientabide batzuk jasotzen dira (6. ataletik 8.era).



03. TESTUINGURU INSTITUZIONALA ETA NORMATIBOA

03. TESTUINGURU INSTITUZIONALA ETA NORMATIBOA

3.1. GOBERNANTZA KLIMATIKOA

Senegalgo Errepublikako Konstituzioan (2001), bermatutako oinarrizko eskubideen artean dago ingurumen osasungarria izateko eskubidea. Funtsezkoa da kontuan hartzea eskubide hori ezinbesteko baldintza dela giza eskubideak bermatzeko eta errespetatzeko, emakumeen eskubideei dagokienez batez ere. Estatu-mailan beharrezkoak diren ekintza guztiez gain, klima-aldaketaren testuinguruan, eskubide hori benetan betetzeak lotura zuzena du nazioarteko aurrerapenekin.

Senegal Émergent plana (PSE; 201-2035) da herrialdeko garapen sozioekonomikorako esparru politiko globala. Senegalgo gobernuak hainbat politika eta ekintza ezartzen ari da energia berriztagarrien eta gutxiago kutsatzen duen garraio publikoaren arloan. Elektrizitatea sortzeko ikatzaren ekoizpena etetea erabaki du, eta lehentasun gisa ezarri du klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea eta erresilientzia garatzea, batez ere nekazaritza-sektorean.

Elektrizitate-ekoizpeneko helburua, 2023. urterako, instalatutako ahalmenaren %29,2 energia-iturri berriztagarriena izatea da. 2020an, tasa hori %26,7koa izan zen (SENELEC, 2020). 2020an sortutako

elektrizitatearen %17 energia berriztagarrietatik etorri zen. Hala ere, duela gutxi aurkitutako gasa eta petrolioa, potentzial handikoak, garrantzitsuak izango dira datozen urteetako herrialdeko plan energetikoetan. Gai hori erabakigarria izango da KAren aurkako borrokaren esparruan. Hainbat meatze-proiektuk, atzerriko enpresa multinazionalen eskutik, kalte handia eragiten dute ingurumenean eta ekosistemetan.

PSEren Lehentasunezko Ekintza Planen artean, 2019-2023ko planak lehentasun gisa ezarri ditu klima-aldaketara egokitzea eta hidrokarburoen sektorea (petrolioa eta gasa) garatzea. Senegalgo gobernuak ez du karbonoaren neutraltasunaren helburua bereganatu, eta, beraz, ez dago estrategiarik karbonoa progresiboki ezabatzeko, ezta helburu horretarako politika sektorialik ere. Bateriaezinak dira sektore elektrikoan gas fosila erabiltzeko planak eta planetaren tenperatura 1,5 °C-ra mugatzeko xedea. 2022ko martxoan, gobernuak epe luzerako garapen-estrategia prestatu zuen, karbono-intentsitate txikia xede.

Erakundeei dagokienez, erronka handiak daude oraindik ministerioen eta gobernu-agentzien arteko koordinazioaren arloan, eta horrek eragin negatiboa du arlo horretako helburuak betetzean. Bestalde, Ingurumeneko eta Garapen Iraunkorreko Ministerioak (MEDD, frantsesezko siglen arabera) ez du agindu espliziturik berotegi-efektuko gasak murrizteko ekintzak gauzatzeko⁽⁸⁾.

Klima Aldaketari buruzko Batzorde Nazionala (COMNACC) organo aholku-emailea da, instantzia publiko eta pribatuen parte-hartze zabala duena. Arlo horretako koordinazioaz, jarraipenaz eta sentsibilizazioaz arduratzen da, baita arintze-neurriez ere. Hala ere, oraindik ez dago zeharkako estrategia sendorik ingurumenari buruzko gaiak sektore eta ministerio guztietan txertatzeko. COMNACCen erronka nagusietako bat da Klima-aldaketari buruzko 14 Eskualde Batzordeen (COMRECC) eraginkortasuna. Batzorde horietako askoren inplikaziorik ezak eragin negatiboa du eskualde-mailako jardueretan. Halaber, aipatzekoa da emakumeak, oraindik ere, gutxiengoa direla tokiko eta eskualdeko erakundeetan ingurumen-politikak egiten.

(8) Para un análisis más amplio de los aspectos institucionales, se puede consultar: Climate Action Tracker, Une évaluation de la capacité et de l'état de préparation du gouvernement à transformer le Sénégal en une société à zéro émission; CST ClimateGovernanceSeries, Senegal, Agosto 2022.

Senegalen, nazioarteko finantzaketaren arloan mobilizazio-maila ona dagoen arren, aurrekontu-arloan defizit garrantzitsuak daude. Azken hamar urteetan nabarmen murriztu da ingurumen gaiak kudeatzeko aurrekontua. 2011. eta 2021. urteen artean, murrizketa hori %20 koa izan zen; herrialdearen aurrekontu orokorra, berriz, handitu egin zen epealdi horretan. Era berean, baliabide pertsonalak falta dira ingurumenara eta KAra bideratutako instantzia guztietan, baita baso-baliabideen kudeaketaz arduratzen diren erakundeetan ere. Gardentasun-maila oso txikia da basogintza-sektoreko gobernantzan eta gasaren eta petrolioaren sektorean; horrek eragin negatiboa izan dezake ingurumenari eta KAri buruzko politiken kudeaketa eraginkorren.

Legegintza-mailan ere, defizitak daude. Senegalek ez du klima-aldaketari buruzko legeria osorik, baina zenbait arau sektorial garatu dira, hala nola Energia Berriztagarrien Legea (2010-21. legea), Bioerregaien Sektoreari buruzko Legea (2010-22. Legea) eta Basogintza Kodea (2018-25. legea). Ingurumenaren Kodea 2001. urtean onartu zen, baina ez ditu esplizituki jorratzen berotegi-efektuko gasei buruzko gaiak, ezta KAren aurkako arintze- edo borroka-neurriak ere.

Gaur egun, ingurumenari buruzko lege-proiektu berri bat dago, 2022ko ekainean onartu zena, eta eztabaidagai dena maila politikoan zein gizarte zibilean. Bio-segurtasunari buruzko lege berriak (2022) eztabaida handia sortu du gizarte zibilean; 2019ko aurreko legea indargabetzen du eta atea irekitzen du genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) Senegalera inportatzeko eta merkaturatzeko.

Iritzi publikoak eremu horretan izan dezakeen eraginari dagokionez, Senegalgo gobernuak ez du kontuan hartzen, nahiz eta mobilizazioak eta protestak egin izan diren erregai fosilen edo ingurumenean eragin handia duten hainbat proiekturen aurka. Bestalde, egindako inkestek erakusten dutenez, oraindik ere arronka garrantzitsuak daude KAri buruzko kultura eta ezagutzari dagokionez (UCESA, 2021). Biztanleriarentzat, herrialdeko gai nagusiak dira, oraindik ere, langabezia, osasuna eta hezkuntza. Inkestatuen erdiak baino gehiagok uste du KA gai larria dela, baina ez dago 19 arazo nagusien artean.

3.2. IGUALDAD DE GÉNERO

Hainbat arau-esparru ezartzeak aurrerapenak ekarri ditu maila jakin batzuetan, nahiz eta oso arronka garrantzitsuak dauden horiek praktikan aplikatzeko, batez ere landa-eremuan⁽⁹⁾. Senegalek Genero Berdintasun eta Ekitaterako Estrategia Nazionala egin zuen 2003an, 2016-2026an eguneratua⁽¹⁰⁾, eta hainbat egitura sortu ziren (gehienak hiriburuan oinarrituta, Dakarren), planteatutako neurriak zehazteko asmoz⁽¹¹⁾.

2010. urtean onartutako Parekidetasun Legeak gizonen eta emakumeen arteko erabateko parekidetasuna ezartzen du hauteskunde bidez erabakitzen diren erakunde guztietan. Horri esker, nabarmen handitu da emakumeen ordezkartza politikoa, 2022ko uztailan hautatutako Batzar Nazionalako eserlekuen %44 eskuratuta (Afrika Mendebaldeko herrialdeetako proportziorik altuena⁽¹²⁾). Balantzaren beste aldean, Familiaren Kodeak (1972) emakumearen aurkako arau diskriminatzaileak jasotzen ditu. Arau horiek errotik

(9) Konstituzioak (2001eko urtarrilean aldarrikatu zena) genero-berdintasun printzipioa jasotzen du. Berretsi egin dira emakumeen eskubideei buruzko nazioarteko eta eskualdeetako hitzarmen nagusiak, hala nola Emakumeak Diskriminatze Modu Guztiak Deuseztatzeko Ituna (CEDAW) eta Maputoko Protokoloa, nahiz eta hobetu egin daitekeen legegintza nazionalaren eta nazioarteko konpromisoen arteko harmonizazioa. Senegal Emergent planaren (PSE) lehentasunezko ekintza-planetan (2019-2023) generoa txertatzen da garapen-prozesuan eragilean parte-hartze inklusiboa, ekitatiboa edo berdinzalea lortzeko. Senegalek, halaber, Genero Berdintasunerako eta Ekitaterako Estrategia Nazionala (SNEEG) egin du, 2026. urtera arte. Bat dator Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH)(2030).


(10) <https://www.prb.org/wp-content/uploads/2020/06/Senegal-Strat%C3%A9gie-Nationale-d%E2%80%99Equit%C3%A9-et-d%E2%80%99Egalit%C3%A9-de-Genre-2016-2026.pdf>

(11) Aipatzekoak dira, adibidez, Direction des Organisation Féminines et de l'Entrepreneuriat du Ministère de la Femme, le Centre National d'Assistance et de Formation, le Fond National de Promotion de l'Entrepreneuriat Féminin.

(12) <https://www.prb.org/wp-content/uploads/2020/06/Senegal-Strat%C3%A9gie-Nationale-d%E2%80%99Equit%C3%A9-et-d%E2%80%99Egalit%C3%A9-de-Genre-2016-2026.pdf>

baldintzatzen dute emakumeen estatutu pertsonala eta familia-eremuan eta gizonetako harremanetan dituzten eskubideak baliatzea, gizona baita familiaburua⁽¹³⁾.

Senegalgo emakumeek diskriminazio ugari jasaten jarraitzen dute⁽¹⁴⁾. Hezkuntzarako sarbidean desparekotasun handiak daude oraindik ere: bigarren hezkuntzara iritsi da gizonen %21,4 eta emakume helduen %11,1 bakarrik⁽¹⁵⁾. Lan-eremuan, gizonak dira lan-kontratu berrien %70,9ren titularrak⁽¹⁶⁾. Erronka ugari sortzen dira emakumeen eskubideak eraginkortasunez babesteko mekanismoak praktikan jartzean⁽¹⁷⁾. Genero arloan atzerakada handiak eragin dituzte ere COVID-19aren pandemiak eta hedapena geldiarazteko hartutako neurrien ondorioek (ezkontza goiztiarrak, senar-emazteen arteko indarkeriak, besteak beste)⁽¹⁸⁾, eta horrek, aldi berean, KAren inpaktu iraunkorrak larriagotu ditu.



(13) Senegalgo familiaren kodearen arabera, gizon bakarra onar daiteke familiaburu gisa, eta bera da ia dena erabakitzen duena. Besteak beste, familia non bizi den eta seme-alabei nola edo noiz eman dokumentu administratiboak; gizona da familiako arduradun nagusia. Seme-alabak ez aitortzeko aukera ere badu, eta aitatasun-probak debekatu-ta daude - <https://www.senepius.com/femmes/le-collectif-des-feministes-senegalaises-liste-une-serie-de>

(14) Genero berdintasunerako Estrategia Nazionalaren adierazleak (SNEEG, 2009-2015) diskriminazio askoren erakusgarri dira.

(15) https://luxdev.lu/files/documents/Genre_SEN_vF.pdf

(16) Genero-diagnostikoa, INEk eta FADECek egina (2015).

(17) Maputoko Protokoloa, abortatzeko aukera zabaltzeko Afrikako Batasunaren ekimena, 2005ean berretsi zuen Senegalek, eta legeria nazionalan erabat txertatzeko zain dago oraindik. Abortua Senegalen, haurdun dagoen emakume baten bizitza salbatzeko bakarrik dago baimenduta. Bestalde, Senegalek Zigor Kodean ez zuen bortxaketa delitu gisa tipifikatu 2020. urtera arte.

(18) <https://sn.boell.org/fr/2020/04/03/covid-19-quelles-consequences-sur-les-inegalites-de-genres-au-senegal>

Klima-aldaketaren INPAKTUA GENERO-EKITATEAN, KEBEMER DEPARTAMENTUAN (SENEGAL)

04. KLIMA-ALDAKETA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

04. KLIMA-ALDAKETA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Beren komunitateetan betetzen duten rolagatik eta gizonetikiko desparekotasun iraunkorregatik, KAren eragina zuzenagoa da emakume eta neskatuegan, batez ere landa-eremuak badira. Gizonekin alderatuta, haien bizi-baldintzak gehiago okertzen dira, eta haien eskubideek urraketa gehiago jasaten dituzte.

Senegalgo emakumeek nekazaritza-sektorean duten rola iraupeneko ekonomiara mugatu da luzaroan, baina ekoizpen-bideak (lurra, kreditua, sargaiak) eskuratzeko mugekin. Nekazaritza-jarduerak bigarren maila batean ageri dira, ez dira agerikoak, etxeko lanak eta zaintza-lanak bezala. Sektorerorretan, Senegalgo eremu erdiaridoetan, emakumeek egiten dituzten ekoizpen-jarduera gehienei kalte egiten diete KAri lotutako muturreko baldintza klimatikoek, hala nola euriteen patroir irregularra, uholdeak, lehorteak, muturreko tenperaturen edo haize gogorrak. Hondamendi klimatikoek, gainera, zaildu egiten dute lantokietara bertaratzea, joan-etorriak mugatuz eta emakumeen osotasun fisikoa arrisku betean jarritz.

KAK eragin handia izan du ere Senegalgo herritarren elikadura-

segurtasunerako funtsezkoa den arrantza-sektorean. Emakumeek rol garrantzitsua dute sektorer horretan, arrantza-tekniken eta balio-katean egiten duten lanaren bidez. Kalkuluen arabera, arraina da populazioak kontsumitzen duen proteinen %70. Sektorer horrek, halaber, bideratu egiten du eraldaketaren sektoreko emakumeen enpleguaren zati handi bat. Informaltasuna nagusi den sektorea da, eta hori kontrolatzeko mekanismorik ez dagoenez, baliabideak modu irrazionalean ustiatu eta agortzen dituzte, atzerriko herrialdeetako ontzi-enpresek batez ere.

KAren ondorioz, eta horrek dakarren baliabide-urritasunaren ondorioz, nabarmen handitzen da emakumeen lan-karga, etxeaz, familiaz zein diru-sarrerak sortzeaz arduratzen baitira. Are gehiago zaildu dute haien egunerokotasuna COVID-19aren garaian bizi izandako larrialdi-egoerak. KAren ondorioei lotutako baliabide-urritasuna gero eta handiagoa denez, areagotu egin da landa-eremuetako exodoa, Kebemer departamentuan egiaztatu den moduan. KAren ondorioz migrazioak areagotzen ari dira, landa-eremutik hirietara eta estatuko mugetatik harago. Afrikako eskualdeetan, hala nola Mendebaldeko

Afrikan, migrazio gehienak inguruko herrialdeen artean gertatzen dira. Gai horrek, era berean, interpelatu egiten ditu KArikiko erantzukizun handiena duten herrialdeak (horietako asko, Europakoak) eta migrazio-politika oso eskasak dituztenak.

Kasu askotan, emakumeek beren seme-alaba migratzaileak ordezkatu behar dituzte nekazaritza-lanetan. Emigrazioaren ondorioz, gora egin du ere emakumeak buru dituzten etxeen kopuruak.

Beraz, KAren hainbat ondoriorengatik, emakumeek denbora gehiago eman behar dute beren familien bizirauteko baliabideak lortzen (ura, janaria prestatzeko egurra, janaria, diru-sarrerak). Batzuetan, neskatuek ere zeregin horietan laguntzen dute, eta horrek zuzenean eragiten dio euren hezkuntzarako eskubideari eta bizi-aukerei. Bigarren hezkuntzan, neskatuen eskola-uzte tasa altua da, landa-eremuan bereziki, eta mutikoena baino nabarmen handiagoa.

Jarraian, horretan eragina duten alderdi garrantzitsuenetako batzuk aipatuko ditugu.

- Landa-eremuetako emakumeen analfabetismoa arazo erabakigarria da⁽¹⁹⁾. Gainera, emakumeek pobreziarako arrisku handiagoa dute eta zailtasun gehiago dituzte osasun-zerbitzuak eskuratzeko. Lurren %13,4 baino ez dute, eta ekoizten eta kontsumitzen den energiaren %6,4 baino ez dute erabiltzen. Senegalen, 15 urtetik gorako emakumeen %33 inguru pobrezia mugaren azpitik bizi dira. Alderatz gero, tasa hori %27koa da kategoria bereko gizonen artean, hau da, %6 txikiagoa⁽²⁰⁾.
- Oinarrizko azpiegituren arloan (errepideak, elektrizitate- eta ur-sareak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak) funtsezkoak dira ere landa- eta hiri-eremuaren arteko desparekotasunak, bereziki eragiten baitiete emakumeei. Senegalgo landa-eremuko herri batzuek, Kebemer departamenduan gertatzen den bezala, ez dute elektrizitaterik. Elektrifikazio-tasa nazionala (%78,6) kontinenteko

altuenetakoa da, baina desparekotasun sakonak daude hiri- eta landa-eremuen, eskualde geografikoen eta diru-sarreraren aranera, eta gabezia handiak daude zerbitzuaren kalitatean.

Senegalen egindako Demografia eta Osasunari buruzko azken Inkestak erakutsi du korrelazio handia dagoela pobrezia eta elektrizitaterako sarbiderik ezaren artea⁽²¹⁾. Senegalgo Gobernuak, PADAESen bidez, helburu gisa finkatu du 2025. urterako herritar guztiei elektrizitate fidagarria, kalitate handikoa eta eskuragarria ematea⁽²²⁾.

- Nekazaritza-ekoizpen sisteman emakumeek funtsezko lekua duten arren, lurra eskuratzeko dituzten aukerak marjinalak dira oraindik ere; %9 baino gutxiago Senegalgo Kebemer departamenduan. Horrek eragin oso negatiboa du hainbat mailatan eta emakumeen ahalduntzeari dagokionez⁽²³⁾.

Oinordetza-eskubideak emakumeak diskriminatzen ditu herentziari dagokionez eta, ondorioz, labore-lurren jabetza-eskubideari dagokionez. Gizonak dira partzela onenen jabeak, eta, emakume gehienek ez bezala, zenbait finantzaketa-tresna dituzte eskura. Emakumeei ematen zaizkien kredituak oso apalak izan ohi dira. Are gehiago mugatzen dute sarbidea bermerik ez izateak eta arrisku klimatikoak eragindako segurtasunik ezak⁽²⁴⁾.

- Emakumeak, gainera, moldatu egiten dira beren beharrak behar bezala integratzen ez dituen ingurune politiko, instituzional, normatibo, finantzario eta teknologikoan. Erabakigarria da mikrokrediturako sarbidea errazten duten teknologia berriak eskuratzeari (Orange Money, Equity Bank, Mpesa). Hala ere, Interneterako sarbidea mugatua da oraindik, batez ere landa-eremuan. 2020ko GSMA txostenaren arabera, dezente orokortu da mugikorrek edukitzeko sarbidea: %73 gizonen kasuan eta %71 emakumeenean, baina oraindik ere gutxiengoa da smartphone

(19) Analfabetismo-tasa oso altua da oraindik ere emakumeen artean, nahiz eta FADEC eta bestelako antolakundearen proiektu askok alfabetatze funtzionaleko programak gauzatu dituzten eta hainbat egitura dauden, hala nola neskek eskolatzearen alde lan egiten duen SCOFI (sentsibilizazioa) edo Haur eta Emakumeen Hezkuntzarako Hamar urterako Programa (PDEF).

(20) <https://borgenproject.org/women-in-senegal/>

(21) https://www.ansd.sn/index.php?option=com_ansd&view=titrepublication&id=38

(22) <https://energie.gouv.sn/2022/06/24/acces-universel-a-lelectricite/>

(23) Ohiturazko arauak mugatu egiten dute emakumeek lurra eskuratzeari; izan ere, familia-ustiatzietako nagusien bitartekaritza ikaragarri behar dute, eta horiek, gehienetan, uste dute emakumeei lurra eskuratzeko aukera emateak familia-ondarea desegituratu dezakeela, ezkondu eta lekualdatu beharko luketelako. Hala ere, praktika horiek ez datoz bat Senegalgo Konstituzioarekin, honako hau ezartzen baitu: "Gizonek eta emakumeek lurra edukitzea eta jabetza eskuratzeko eskubidea dute, Legeak ezarritako baldintzetan". Ikus <https://www.ceci.ca/fr/nouvelles-evenements/les-femmes-vivant-en-milieu-rural-et-lacces-aux-ressources-au-senegal>

(24) Emakumeek kreditu-erakundeetan erantzukizuneko postuetan ez parte hartzeak (Administrazio Kontseiluaren %31 eta kreditu-batzordeen %35) eragotzi egiten die eremu horretan eragin influentzia izatea. Arazo horri heldu nahi dio, beste ekimenen artean, genero gaiak kontuan hartuko dituzten kreditu-erakundeak sortzeko FADECen inbertsio funtsak.

mugikorretarako sarbidea, konexio-bektore nagusia eta zerbitzuetarako sarbiderako funtsezko tresna. Emakumeen %37k soilik dute Internetarako sarbidea, eta gizonen kasuan, berriz, %46k⁽²⁵⁾. Gainera, azterlanak adierazten du emakumeen %26k bakarrik erosten duela smartphone bat bere baliabideekin, eta gizonen kasuan, berriz, %68k.

- Emakumeek, gainera, informaziorako sarbide mugatua izaten dute, eta hori funtsezkoa da nekazaritza-sektorean eta haren praktketan; izan ere, aldaketa klimatologikoen, gero eta zorrotzagoak direnez, egutegia eta ibilbide teknikoa egokitu eta doitzeko gaitasun handia eskatzen dute. Egokitzapen- neurriak txertatzeko, funtsezko beste alderdi bat da prestakuntza espezifikoa jasotzeko sarbidea.



(25) <https://www.jeuneafrique.com/906968/economie/acces-au-mobile-un-ecart-hommes-femmes-preoccupant/>

05. EKOIZPEN-IKUSPEGI BERRIAK: AGROEKOLOGIA

05. EKOIZPEN-IKUSPEGI BERRIAK: AGROEKOLOGIA

Senegalgo zenbait eskualdetan azkartu egin dira KAren eraginak, eta horri esker ikuspegi berriak agertu dira. Horietako bat, agroekologia, ekosistemen potentziala ahalik eta gehien aprobeztatzean zentratzen da, kanpoaldearekiko mendekotasun txikiagoa duten nekazaritza-praktika zaharrak berreskuratuz eta lurzorua modu naturalean ongarrantuz.

Agroekologiaren nozioak uztartu egiten ditu zientzia, gizarte-mugimenduak eta nekazaritza-praktiken balioespena. Hainbat printzipiok gidatzen dute: (i) giza garapena sustatzea; (ii) ekoizpen-sistemen egituren konplexutasuna eta funtsezko beharrak errespetatzea; (iii) biodibertsitatearen aberastasuna babestea; (iv) laboreen dibertsifikazioa; (v) kanpo-efektu negatiboak mugatzea; (vi) diru-sarrera seguruak eta tokikoak sortzea; eta (vii) giza dinamika eta dinamika sozialak balioestea.

Agroekologiaren ikuspegia, beraz, ez da teknikoa bakarrik, soziala ere bada, eta hortik dator erreformen garrantzia (lurra eskuratzea, adibidez) eta tokiko agintariak baliabide naturalen kudeaketan duten rola. Agroekologia nekazaritza ekologikotik harago doa, paradigma-aldaketa bat proposatzen du; alderdi soziopolitikoak


eta ingurumenekoak kontuan hartzen ditu, eta tokiko ezagutzen kapitalizazioa eta balorizazioa azpimarratzen ditu.

Senegalen proiektu agroekologiko ugari jarri dira martxan, hala nola LAO, PATAE, Reverdir le Sahel eta PARFAU, eta horiek ere azterlan honen xede den eskualdera, Kebemer departamentura, bideratzen dira. Gobernuak ildo bereko ekimenak ere jarri ditu abian, hala nola 2018ko Senégál Émergent Vert plana (Senegalgo Plan Berdea), eremu erdiaridoetarako basoberritze jasangarriko programa. Tokiko agintariak ere zenbait ekimenen lider dira: horren adibide da Senegalgo udalerrri eta hiri berdeen sarea (REVES).

Halaber, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko programa eta politika ugari egin dira. Horien artean, aipatzekoak dira honako hauek: REVA (nekazaritzara itzultzeko plana); GOANA (Elikaduraren eta Oparotasunaren aldeko Nekazaritza Ofentsiba Handia); PNIA (Nekazaritzako Inbertsioen Plan Nazionala); NAPA (Klima Aldaketara Egokitzeko Ekintza Plan Nazionala); Baso-politika nazionala (2005-2015); Senegal 2025 Azterlan nazional prospektiboa (2005-2025); eta Louga eskualdeko Ingurumeneko Ekintza Plana (PAER).

Eragile pribatuak ere mobilizatu dira azterlanerako, hala nola Gizakiaren eta Ingurumenaren Nazioarteko Tessékéré Behatokia (Senegalgo Harresi Berde Handia) edo CNRS INEE: Ekologia eta Ingurumen Institutua (Cheik Ante Diop Unibertsitatea, Dakar).

Era berean, garrantzitsua da eragileen artean sinergiak sortzeko aliantzen garrantzia azpimarratzea, hala nola Mendebaldeko Afrikako Agroekologiarako Aliantza (3AO) edo DyTAED Aliantza. Azken hori koordinazio- eta informazio-plataforma bat da, ekoizle-antolakundeen, ikerketa-institutuen, nazioarteko GKEen eta gizarte-mugimenduen artekoa.



Klima-aldaketaren INPAKTUA GENERO-EKITATEAN, KEBEMER DEPARTAMENTUAN (SENEGAL)

06. AZTERLANAREN EMAITZAK

06. AZTERLANAREN EMAITZAK

Jarraian, azterlanaren emaitzak azaltzen dira. Oinarrian, batez ere, bilera eta elkarrizketen bidez egituratutako landa-lana, foku-taldeekin (FT) egindako lan-saioak eta EJP (ezagutzak, jarrerak eta praktikak) inkesta daude. Azken horren emaitza zehatzak IV. eranskinean agertzen dira.

Azalpenerako, gaien arabera antolatu dira emaitzak.

EZAGUTZAK **Klima-aldaketari buruz**

FTen bidez zein egindako inkestaren bidez, lehenik eta behin esan behar da, alde batetik, ezjakintasun handia dagoela KAren kontzeptuari eta kausei buruz, eta, bestetik, nahasmena dagoela KAren kontzeptuaren eta haren ondorio eta/edo eraginen artean. Tokiko komunitateen pertzepzioaren arabera, KAK nahasmen handia sortzen du, eta kausak, ondorioak eta inpaktuak korapilatzen dira, inolako bereizketarik gabe.

FTetan eta inkestan parte hartu duten pertsona gehien-gehienek ez dute nozio argi eta egituraturik KA zer den, eta haren kausak eta erantzule nagusiak zein diren jakiteko⁽²⁶⁾. Gehienek, zuzenean lotzen

zuten KA bere ondorio eta/edo inpaktuekin. FTetan, KAren kausa eta erantzuleei buruz galdetzean, emakume zein gizonen kasuan, erantzunik ohikoena zen ondorio batzuk zerrendatzea, hala nola muturreko tenperaturak, uholdeak, lehorreak, izurriteak, baliabide naturalen urritasuna eta baso-espezieen, sendabelarren eta faunaren desagertzea.

Aldiz, KAren eragin eta inpaktuei buruz galdetzean, FTetan parte hartu zuten pertsona gehienek ondo identifikatu zituzten horietako batzuk. Horrela, adierazten zuten oso modu zuzenean eta kaltegarrian eragiten dietela beren bizi-baldintzei eta bizirauteko estrategiei. Ohiko erantzunetako batzuk ziren landare-, animalia- eta arrantza-ekoizpenaren errendimendua murriztea; animalia eta gizakien gaixotasun eta izurriteak ugaritzea; eta janaria prestatzeko energia-iturri nagusiaren —egurra— falta; eta elikagaien segurtasun-eza areagotzea.

FTetan identifikatutako eraginen artean, aipatzen zen ere neguko/lehorreko laborantzan oinarritutako nekazaritza-eredu tradizionalak agortzea (frantsesez, l'hivernage), landa-exodoa eta migrazio-mugimenduak eraginez. Thiolom Fall herria nekazaritzaren menpe dago %100ean. Bertako alkatearen ondokoak, KAren ondorioez hitz egitean, adierazi zuen azken uztaren fruituek 4 hilabete bakarrik iraun

zutela, eta aurten ez dela ia ezer bildu. Identifikatutako berehalako beste ondorio negatibo batzuk lotura daukate osasun-arazoekin, hala nola migrainak, intsolazioak edo abortuak, muturreko tenperaturak dituzten landa-lanen gogortasunak eragindakoak.

Azterlanean parte hartu zuten pertsona gehienek ez zuten asmatu KAren arrazoiak behar bezala identifikatzen, baina sentsibilizazio handia dago arintze- eta egokitze-ekintzak eta -neurriak lehenbailehen ezartzeko beharraz. Azterlanean parte hartu zuten pertsonak argi eta garbi adierazi zuten KA lehenbailehen konpondu beharreko gaia dela.

FTetan "denboraren lerro" bat marrazten saiatu ziren, ahal zen neurrian, KAK Kebemer Departamentuan izandako eraginaren ibilbide tenporal eta mailakatua egiteko, baina erantzun-motek eta jasotako prestakuntza urriak ez zuten horretarako aukerarik eman.

AGROEKOLOGIARI BURUZ

FTetatik eta inkestatik ondoriozta daitekeenez, maiz, lotu egiten da agroekologia ekoizpen-metodo biologiko alternatibo batekin,

zeinak eskura dauden baliabideetatik abiatuta, kanpoko sargaiekiko mendekotasuna murrizten duen; aitzitik, agroekologia kontzeptua ez da guztiz ezagutzen.

Era berean, bai FTetan bai inkestan egiaztatu da parte-hartzaile askorentzat, praktika agroekologiko hasiberriak hartzeko arrazoi nagusia dela gero eta muturreko baldintzetara egokitzeko premia dutela. Ekoizpen-sistemek ingurumenean duten eragina eta kanpoko intsumo kimikoekiko mendekotasuna (pestizidak, ongarriak, hazi hobetuak, arraza egokituak, etab.) murrizten duen alternatiba iraunkor gisa baino gehiago, agroekologia, batez ere, irtenbide bideragarri bakar gisa hartzen da, baliabide naturalen degradazio progresiboak eta baliabide ekonomikoen urritasunak markatutako testuinguruan.

Era berean, egiaztatu da inkestatutako pertsona gehienek praktika agroekologikoak hartu dituztela azken urteotan, baliabide naturalen degradazio progresiboak markatutako egoerara egokitzeko premia horren ondorioz. Hala ere, kasu askotan praktika horiek ausaz erabiltzen dira eta ingurumenerako kaltegarriagoak diren praktikekin konbinatzen dira, adibidez, ongarri organikoa pestizida kimikoekin nahastuta erabiltzea, baliabideek eta erosteko ahalmenak horretarako aukera ematen dutenean. Hori guztia estrategia deliberaturik eduki gabe ibilbide teknikoari eta txandakatzeko-sistemei, laboreen elkartzeari eta lurzoruen kontserbazioari buruz.

BASOBERRITZEARI BURUZ

Basoberritzearen eragingarri nagusia pizgarri ekonomikoa da. Hainbat faktorek bultzatzen dituzte jarduera horiek. Erantzun askok azpimarratzen dituzte laguntza-programen ordainketak edo pizgarriak. Beste batzuek sentsibilizazioa azpimarratzen dute praktika agroekologikoak gauzatzeko arrazoi nagusi gisa, hala nola zuhaitzak landatzea. Neurri txikiagoan aipatzen da pertsona bakoitzak landatutako zuhaitzen hildako zura ustiatzeko eskubidea.

Zenbait erantzunetan ikus daiteke gero eta urriagoa dela janaria prestatzeko erabiltzen den hildako zura, eta alternatibak bilatu behar direla zuhaitzetatik egurra lortzeko debekuaren aurrean. Inkestarren bidez egiaztatu denez, desertifikazioaren inpaktua murrizteko irtenbide bat izan daiteke zura modu eraginkorragoan erabiltzeko labe edo sukalde hobetuak erabiltzea, lehengaiaren eskasia ikusita. Hala ere, gai hori behar bezala baloratu behar da, kontuan hartuz FADECek eta antzeko entitateek sukalde hobetuak dituzten proiektuetan duten esperientzia⁽²⁷⁾.

Basoberritze praktikei dagokienez, azterlanean parte hartu duten pertsonak abantaila asko adierazi dituzte. Kasu gehienetan, praktika horiek erlazionatu egiten dira ekoizpen-sistemekin, ingurumena babestearekin, gizakien eta animalien kontsumoarekin eta

ingurumen-zerbitzuekin, hala nola lurzoruen finkapenarekin.

Basoberritzeak daukan dimentsio multifuntzionalak, eta ingurumena babesteko bitarteko gisa, adierazten du potentzial argia dagoela —tokiko biztanleriaren beharrak eta lehentasunak identifikatzeari dagokionez— nekazaritzako eta basogintzako sistema erresilienteetara igarotzeko etorkizuneko programak garatzeko, nekazaritza, abeltzaintza eta arbolazaintza erlazionatuz, eta beste baso-produktu batzuk ustiatuz, hala nola ezta eta perretxikoak.

EKOIZPEN-SISTEMAK ETA IRAUPEN-ESTRATEGIAK

FTen bidez bildutako informaziotik eta inkestatik ondoriozta daitekeenez, emakumeei egozten zaizkie klima-aldaketara egokitzeko abeltzaintza-sistemen eboluzioak eta berrikuntzak. Era berean, egiaztatu da emakumeek ganaduarentzako hainbat elikagai-mota jarri dituztela martxan larreen urritasunera egokitzeko; besteak beste, nekazaritzako azpiproduktuetan (tipula, arrain ketua, artoa, lekaleak eta artatxikia) oinarritutako elikagaiak egin dituzte.

Iraupen-estrategietan gertatzen diren aldaketei dagokienez, ikus daiteke agroekologia eremuen arabera gauzatzen diren ekintzak

(27) Hobetutako sukaldeei dagokienez, bildutako informazioaren arabera, badirudi ez dutela espero zen arrakasta izan, eta, beraz, aztertu egin behar dira aurreko proiektuetako praktika onak eta txarrak eta ikasitakoak.

konbinatzen direla, eta ekintza horiei esker garatu daitezkeela diru-sarreraren iturriak dibertsifikatzeko estrategiak, KAren ondorioetara egokituak. Estrategia nagusiak, garrantziaren arabera, honako hauek dira: i) aurkako urtaro / baratze nekazaritza eta fruta-ekoizpena, biak ala biak lotuta merkataritza txikiarekin eta merkatu-hobiak aurkitzeko produktuak bereiztearekin; ii) abeltzaintzako ustiategi erresilienteagoak, barne hartuz oilaskoak, ardiak eta ahuntzak haztea, hobeto egokitzen diren arraza berrien bidez, ganaduarentzako elikagaiak erosita indartzuz; eta iii) enplegua bilatzea garraio, joskintza eta bestelako sektoreetan, eta hirietara lan bila joateak eragindako landa-exodoa.

FTen eta inkestaren xede diren zonaldeetan oso aukera gutxi daude diru-sarrerak sortzeko, eta, batez ere, oinarritu egiten dira baratze- eta fruta-ekoizpenaren merkataritza txikian. Ez dago ia zerbitzurik, eta bizibide-estrategiak nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-sistemen mende daude erabat. Eraldaketa ez da ia existitzen, eta ahalegin guztiak lehen mailako produktuen ekoizpen eta salmentara bideratzen dira, gutxieneko balio erantsia ematen dutenak.

Nekazaritza-sistemak, eta, zehazki, barazkigintza, diru-sarreraren funtsezko iturria dira, baita nutrizionalki osagarriak eta onuragarriak diren elikagaien iturria ere. Ustiapen horrek joera du landutako azalerak handitzeko —lurzoruak pobretu direlako eta errendimendua murriztu delako— baita produktuak dibertsifikatzeko ere, merkatu-hobi berriak bilatzeko; ez da ulertzen ustiapen-eredu iraunkor gisa, iraupen-estrategia gisa baizik.

Hainbat alderdik dute eragina abeltzaintza-sistemen bilakaeran. Lehenik eta behin, larrerik ez dagoenez, forma berrietara egokitzen da ganaduaren elikadura, nekazaritza- eta baso-azpiproduktuetan oinarritutako elikagaien prestaketa artisauan oinarrituta; hasi berri den lan hori emakumeek egin ohi dute. Aldi berean, eta erosteko ahalmenak aukera ematen duenean, merkatuan eskuratzen dira ganaduarentzako elikagaiak. Bestalde, ustiapen-sistemek erabiltzen duten beste alderdi bat da larreen urritasun progresiboaren aurrean klima-aldaketara egokitutako animalia-espezieak sartzea; abeltzaintza-sistema erresilienteak indartzeko etorkizunerako pista bat.

Azterlana egin den eremuetan zabaldua dagoen kakahuete-ekoizpenari dagokionez, identifikatutako berrikuntza bakarra ongarri organikoaren erabilera da, azken urteetan hasi berria dena.

ALFABETATZEA

Emakumeentzako, komunitatearen alfabetatzea ahalduntzeko bidea da, aukera ematen duena aurrezpen kolektiboko eta negozioa egiteko ekimen txikiak kudeatzeko ('tontina' bezalako sistemen bidez, besteak beste), kalkulu matematikoak egiteko, norberak mezuak idazteko eta testuak irakurtzeko. Alfabetatzeak, gainera, proiektio soziala indartzen du, eta gaitasuna areagotzen du jendaurrean hitz egiteko eta lan-sareak sortzeko komunitatean zein komunitatetik kanpo.

EJP inkestan eta FTen bidez jasotako informazioan, agerian geratzen da os altua dela neskatoen eskola-uzte tasa, batez ere, gorago esan bezala, bigarren hezkuntzan. Hainbat kausak dute eragina 15 urtetik gorako nesken eskolatze-gabezia —tasa %70ekoa da—, hala nola ezkontza goiztiarrek edo institutuak beren herrietatik oso urrun daudela, adibidez, Ngandiouf herrian. Gertuen dagoen lizeoa, administratiboki Thiés-en eta Tivaouane-ko Akademiaren mende dago.

GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO ESKUBIDE-BERDINTASUNA

Tokiko komunitateetan euren eskubideak erabat gauzatzea eragozten duten zenbait faktore nagusi identifikatu dituzte emakumeek, EJP inkestan zein FTetan. Honako hauek dira: i) eragile erlijiosoek duten eragina balio soziokulturalen eremuan; iii) jendarte patriarkal baten berezko balioen iraunkortasuna; iii) hezkuntzarako sarbiderik eza; iv) lege-esparru kontserbadorea (familia-kodea). Faktore ekonomikoak ere oztopo dira emakumeek beren eskubideak erabat gauza ditzaten, autonomia faltagatik eta euren jarduera ekonomikoaren izaera osagarriagatik.

Baliabideen eta diru-sarreraren urritasuna eta murrizketa direla eta, egitura sozial eta kulturalen ondorioz, jendarte kontserbadore eta

nabariki patriarkalean, emakumeak dira beren zeregin merkataritz txikia bezalako ekintza berriak gehitzen dizkietenak, berez euren denbora eta ahaleginari dagokionez gainkarga izan arren. Euren senarrak nekazaritza-lanetan laguntzeaz gain (antza, gurasoekin landa-eremuan lan egiten zuten gazte asko Dakarrera joan dira) eta seme-alabez eta etxeaz arduratzeaz gain, emakumeek funtsezko zereginak bete behar dituzte, hala nola janaria prestatzeko ura eta egurra lortzea, eta gero eta txikiagoak diren diru-sarrerak osatzea.

Ura eta egurra bilatzeko zenbat eta desplazamendu handiagoa egin (tenperatura altuekin, lana zailduz eta osasunari kalte handia eginez), orduan eta arrisku handiagoa dago gertakari bortitzak edo bortxaketak jasateko, gertatzen den bezala⁽²⁸⁾. Lan-gainkarga horren arrazoa da baliabide alternatiboak aurkitzeko premia larria dagoela, hivernage laboreen nekazaritza tradizionalaren etxeko baliabideen eta errendimenduen murrizketa drastikoa konpentsatzeko, KAren lotura zuzena duelarik.

Emakume eta gizonen rolen banaketari dagokionez, inkestetako eta FTko erantzunetan nolabaiteko heterogeneotasuna ondorioztatzen da. Oro har, emakumeek beren gain nekazaritza- eta abeltzaintza-lanen karga progresibo handiagoa hartzen dute, besteak beste, mantentze-lanak eta sastrakak kentzea, uzta biltzea, ureztatzea eta merkaturatzea. Gizonak, aldiz, lurra eta ongarrien erabilera prestatzen dituzte eta ureztatzeak makinak instalatzeaz eta mantentzeaz

arduratzen dira⁽²⁹⁾.

Sektore publikoak edo GKEek (adibidez, FADEC eta NESI) lagundutako proiektu batzuk saiatu dira emakumeek beren gain hartutako zeregin jakin batzuen pisua arintzen, zerealak, kafea eta bestelako lehengaiak prozesatzeko makineria eta mekanizazioa txertatuz. Horrek ez du esan nahi emakumeen esku geratzen ez direnik familiako beste kide batzuk zaintzeko erantzukizuna eta etxeko diru-sarrerak osatzeko jarduera ekonomiko paraleloak.

Gizonak, berriz, desberdin hautematen dituzte kontu horiek guztiak. Azterlanean parte hartu zuen gizon batek adierazi zuenez, "KAren ondorioak berdin banatzen dira gizonen eta emakumeen artean". Gizonekin egindako FT batean, Taibamar herrian, hauek adierazi zuten KA nagusiki nekazaritzari eragiten dionez, beraiek bilatu behar dituztela elikatzeke diru-sarrerak, jostun, gidari, merkataria edo igeltsero lanen bidez. Beste batzuk, ordea, jabetzen dira emakumeen gainkargaz eta diru-sarrera osagarriak lortzeko zailtasunez. Alde horretatik, parte hartu zuen gizon batek esan zuen "emakumeek lan bikoitza egiten dutela lehengo diru-sarrera berberak sortzeko".

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea FTetan parte hartzen duten emakume gehienentzat, gaur egun KAren ondorioek eragindako lan-gainkarga izateak ez diela haien eskubideei kalte egiten edo genero-desparekotasun handiagoa sortzen. Aitzitik, uste dute gainkarga edo

esfortzu hori beren gain hartu beharreko zerbait dela, horrela ezartzen delako erabakiak gizonak hartzen dituzten bikote- eta familia-harremanen esparruan.

Azken kontu horrek, emakume batzuen antzeko gogoetekin batera, agerian uzten du sentsibilizazio-ekintza batzuk egin diren arren, oraindik ere, argi eta garbi mugatua dela mugatua dela gizon eta emakumeen arteko desparekotasunaren gaineko kontzientzia. Gai horri buruzko eztabaida sozialik ere ez dago. Testuinguru soziala sinesmen eta kultura multzo batek markatzen du, non nagusi diren balio erlijiosoak eta emakumeen rola ikuspegi kontserbadorea, eta horrek nabarmen baldintzatzen du sentsibilizaziorako ekintza eraginkorrak egitea gai gakoiei buruz, hala nola familia-plangintza, ezkontideen indarkeria-ekintzak salatzea, neskatoak bigarren eta goimailako hezkuntzara iristea, eta emakumeen autonomia ekonomiko handiagoa.

Azterlanean parte hartu zuten emakume gehienek ez zuten diskurtso aldarrikatzailerik emakumeen eskubideei eta berdintasun handiagoaren beharrari buruz. Behin eta berriz aipatzen zen emakumeen "autonomiaren" beharra, gizonakiko mendekotasun ekonomikoa murriztea funtsezkoa delako zentzuan.

Era berean, ez dago benetako kontzientziarik ingurumen osasungarria izateko eskubideari buruz, ezta KA oinarriko giza eskubideengan

(28) Hala ere, FT batzuetan adierazi zen eremu horietan zura eta ura distantzia laburrean zeudela eskuragarri, eta KA ez zuela eragin distantzia gehiago ibili behar izatea.

(29) Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldeak (IPCC) adierazi duenez, gertaera klimatikoek estres handiagoa sortzen dute emakumeengan lan-karga handiagoekin duten loturagatik, eta baita hilkortasun handiagoa ere, gizonekin alderatuta.

duen eraginaz ere, hala nola elikadurarako (nutrizio orekaturako eskubidea barne), hezkuntzarako edo osasunerako eskubidean. Adibide gisa, FTetako emakumeek adierazi zuten KAK lotura duela, adibidez, elikagai-eskasia handiagoarekin (nekazaritza-ekoizpenaren errendimendua murriztea) edo gaixotasun gehiagorekin (gehiegizko esfortzuagatik abortuak izatea, haurren gastroenteritisa, alergiak, malaria kasu gehiago). Aitzitik, ez zen inola ere zuzeneko loturarik ezarri oinarritzko eskubide horien (hezkuntza, osasuna, elikadura) eta ingurumen osasungarria izateko eskubidearen artean, nahiz eta gai horri buruzko hainbat galdera egin ziren. Halaber, emakumeek ez zuten harreman zuzenik ezarri genero-berdintasunaren gorakadaren eta erresilientzia komunitarioaren igoeraren artean.

Nahiz eta emakumeek jabe gisa ezin dituzten lursailak eskuratu, gero eta pisu handiagoa dute nekazaritzako, baratze eta animalien hazkuntzako jardueretan. Gizonen rola lotura handiagoa du ureztatze-sistemak instalatzearekin eta mantentzearekin, fruta-arbolak landatzearekin eta bestelako zereginekin, hala nola lurra prestatzea eta ongarritzea, eta, batzuetan, etxeko ganadua zaintzea.

Abeltzaintza-sistemetan emakumeek dituzten rolei dagokienez, azterlanean parte hartu zuten pertsonen adierazi zuten zereginak gizonen eta emakumeen artean banatzen zirela abeltzaintza-motaren arabera: emakumeek oilaskoak hazten zituzten, eta, gizonen, arkumeak. Bestalde, pertsona batzuek adierazi zuten emakumeak

direla artaldea kudeatzeaz eta animaliak elikatzeaz arduratzen direnak, artzaintza barne, eta gizonak soilik animalientzat etxean debekatutako eremuak mugatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen direla, behin animaliak ukuiluan edo etxeko atsedenekuetan daudenean.

Iraupen-alternatibak bilatzeak eta diru-iturriak dibertsifikatzeak, KZren eta ekoizpen-sistema ez hain produktiboen esparruan, gero eta eragile ekonomiko beharrezkoagoa eta kaudimendunagoa bihurtzen dute emakumea komunitate-mailan.

FINANTZA-INKLUSIOA

Esan bezala, funtsezkoa da kalitatezko produktu eta zerbitzu finantzarioen eskuragarritasuna eta erabilera handitzea, hazkunde ekonomiko inklusiborako eta pobrezia murrizteko. Nahiz eta azken urteotan aurrerapen batzuk lortu diren finantza-zerbitzu formaletarako sarbidea zabaltzeari dagokionez, oraindik ere arrakala handia dago gizonen eta emakumeen artean.

Ikusi da zailtasun gehiago dituztela emakumeek finantza-zerbitzuak eskuratzeko, eta, era berean, adierazi dute oso garrantzitsua dela zerbitzu horiek eskuratzeko diru-sarrerak lortzeko jarduerak gauzatzeko eta inbertsio- eta aurrezki-zirkulua elikatzeke.

Kreditua eta mikroreditua eskuratzeko zailtasunak erlacionatuta daude zenbait faktore nagusirekin, hala nola finantza-ezagutzarik eta -prestakuntzarik eza, eta emakumeek zenbait zerbitzu eta ordezkartza soziala eskuratzeko duten zailtasun handiagoa. Finantza-inklusioak, gainera, emantzipazio handiagoa errazten du erabakiak hartzerakoan eta emakumeek senarrekiko duten mendekotasunean, eta lagundu egin dezake gizon eta emakumeei lotutako zenbait erresistentzia kultural eta rol tradizional pixkanaka gainditzeko⁽³⁰⁾.

EKINTZA KOLEKTIBOA

Azterlanean inplikaturako pertsonen oso ondo ezagutzen dituzte ekintza kolektiboaren abantailak. Ezagutza hori oso egokia da KAKen aurkako borrokaren esparruan; izan ere, KAK bizkortu eta areagotu egiten ditu emakumeen autonomian eta oinarritzko eskubideetan eragin negatiboa duten egiturazko dinamikak. Bildutako informazioaren arabera, ondorioztatu daiteke emakumeek egiten dituztela, batez ere, tokiko komunitateen elkarte-sarearen inguruko kohesio sozialeko dinamikak. Tontina-sistema da aurrezki/inbertsio mekanismo hedatuena; duela urte asko erabiltzen da, eta emakumeen ahaldunderako eta finantza-inklusioa areagotzeko ekintzak inspiratu ditzak⁽³¹⁾.

(30) Hainbat ikerketak (Ashraf et al., 2010, Dupas y Robinson, 2013b, Cull et al., 2014) adierazten dutenez, pertsonen finantza-sistamarako sarbidea dutenean, gaitasun handiagoa dute arriskua kudeatzeko, negozio bati ekiteko edo inbertitzeko, eta gastu handiak finantzatzeko, hala nola hezkuntza edo etxeko beharrak.

(31) Banku-sistemarako sarbidea ez dagoenez, berebiziko garrantzia du tontina-sistemak Afrikan eta munduko beste leku batzuetan. Aurrezki kolektiboko eta kredituko sistema asoziatibo eta txandakakoa da.

Aspalditik ari da zabaltzen Herrixketako Aurrezki eta Kreditu Elkarteen sistema (AVEC, frantsesezko siglen arabera), emakumeen ahaldundze ekonomikoa indartzeko. Kideek elkarri laguntzen diote diru-sarrerak aurrezteko, maileguak jasotzeko, eguneroko beharrak asetzeko eta emakume enpresari bihurtzeko Era berean, nabarmentzekoa da rol sozio-komunitarioa eta lider sozialek duten papera (auzoko amabitxiak edo badienougokh, wolof hizkuntzan): oso eragile garrantzitsuak dira sentibilizaziorako eta baita informazioari dagokionez gatazken bitartekaritzari, elikadurari eta elikadura-segurtasunari, genero-indarkeriari eta klima-aldaketari lotutako gaiei buruz. Hori da, adibidez, Kebemerreko emakume ekintzaileen sarearen kasua.

BABES INSTITUZIONALA

Bildutako informazioak adierazten du erakunde publikoek egiturazko defizit handia dutela, esku-hartze eremuetan, gizarte-zerbitzuak emateari dagokionez. Parte-hartzaileen ehuneko handi batek adierazi zuen Estatuak ez duela esku-hartzerik egin ingurumenaren babesaren arloan. Zenbait kasutan, estatuko agintarien laguntza aipatu zen,

baina betiere mugatu egiten zena input kimikoen eta hazien edo makineriaren banaketara, nekazaritza-produktuak eraldatzeko emakumeen jardunaren pisua arintzeko.

Bestalde, gai garrantzitsuei heltzeko —hala nola, KAren inpaktuei— tokiko garapeneko ekintzak eta planak abian jartzeko orduan, baliabide publikoen kudeaketan ez dago gardentasunik ez aurreikuspen-gaitasunik. KAra egokitzeko estrategietan nabarmena da ere erakundeen ahultasuna, batez ere tokiko komunitateetan. Ezagutza, baliabide eta estrategia asko falta dira KAren ondorioei aurre egiteko eta arintze- eta egokitze-neurriak hartzeko, baita populazio horien erresilientzia indartzeko ere. Era berean, argi dago erakundeek ez dutela diagnostikorik edo azterlanik egiten KAri dagokionez. Gauza bera gertatzen da Administrazioen ekintzarik ezarekin⁽³²⁾. Eremu horretako programak eta politikak abian jartzeko garaian, gabeziak daude ere tokiko eta maila nazionalako agintarien arteko koordinazioan eta artikulazioan.

Horrez gain, haziak banatzeko sistema bat dago, gaizki kudeatzen dena eta nekazarien beharrak asetzen ez dituen; gainera, batzuetan, azken urtean bezala, kalitate txarreko haziak banatzen dira⁽³³⁾.

Osasun-sektorean ere ez dago bitarteko egokirik gaixotasunak artatzeko, hala nola malnutrizioa, ezta horiek larriagotzean ere. Era berean, ez dago alerta-sistema goiztiar eraginkorrik.

KLIMA-ALDAKETARI LOTUTAKO GATAZKAK

Saheleko beste leku batzuetan bezala, KA gero eta gatazka gehiago sortzen ari da nekazaritza eta artzaintzan; gatazka horiek oso ugariak dira aspaldidanik Saharako hainbat herrialdetan. KA larriagotu egin du baliabide naturalen eskasia, eta, horren ondorioz, artzainek abereentzako ura eta larreak bilatzera joan behar izan dute. Horrelako gatazkek gertatzen dira, batzuetan, Kemer Departamentuan. Tokiko agintariak eta gizarte zibileko zenbait eragile saiatzen dira bitartekari lanak egiten eta konponbideak bideratzen nekazari eta artzainen arteko liskar-dinamika horietan.

Hidrokarburoak edo mineralak ustiatzeko proiektu jakinei buruzko gatazkek ere lotura dute bizi-bitarteko mehatxuekin eta ingurumen-

(32) Funtz publikorik gabeko testuinguru horretan, deigarria da Thiolog herriko alkatearen ekimena; izan ere, auzo bakoitzari 300.000 CFAko mailegu pertsonala eman zion (interesik gabekoa eta 9 hilabetera), oinarritzko produktuez hornitzeko, hala nola arroza, olio eta janaria prestatzeko ikatza. Esaterako, Thiolog Fallen, ez da ia uztarik jaso, haurren malnutrizio kasu asko daude eta alkatetzak ez du baliabide ekonomikorik. Herriko alkatearen ondokoak aholkularitza lantaldeari adierazi zion agintari zentralek, hilabete batzuen buruan, larrialdi plan bat aktibatuko zutela.

(33) Esaterako, Thiolog Fallen, ez da ia uztarik jaso, haurren malnutrizio kasu asko daude eta alkatetzak ez du baliabide ekonomikorik. Herriko alkatearen ondokoak aholkularitza lantaldeari adierazi zion agintari zentralek, hilabete batzuen buruan, larrialdi plan bat aktibatuko zutela.

inpaktuekin. Kebemer departamentuaren itsasertzean, gaur egun, gatazka handia dago bertako biztanleen eta agintari publikoen artean, zirkoi mineralaren ustiapen-eremua meatze-enpresa batera zabaltzeagatik.

ZIRKOIAREN USTIAPENA KEBEMER DEPARTAMENTUAN

Grande CôteOpération (GCO, frantsesezko siglen arabera) enpresa franko-australiarra Thiès eskualdean zirkoi erauzten hamarkada bat baino gehiago egon ostean, Senegalgo agintariek, 2021ean, luzatu egin zuten zirkoi erauzteko meatze-emakida (25 urtez, 445 Km²-ko azalera) Lompoul inguruan, Kebemer departamentuan.

Thièseko lehen proiektuari dagokionez, hona hemen gizarte zibilak identifikatu dituen inpaktu negatiboak eta funtsezko alderdiak: i) ingurumen-kutsadura; ii) biriketako gaixotasun oso ohikoak, giltzurrunetako gaixotasunak; iii) kalteak, herritarrek lekualdatzeko erabiltzen dituzten lurrezko pistetan; iv) gardentasunik eza hondakin arriskutsuak tratatzeko eta ezabatzeko metodoari dagokionez; v) lurzorua pobretzea meatzaritza-operazioen ondorioz (bertako nekazariak frogatua, meatze-ustiapena hasi zenetik nekazaritzako errendimendua jaitsi baita); azal freatikoaren kutsadura posiblea; vi) zirkoi erauzteko metodoak hondakin erradioaktiboak sortzen dituen susmoa (bertako biztanleek hala eskatu arren, aditu independenteek ez dute erradioaktibitatea neurtu); vi) kaltetutako tokiko populazioak nahi gabe birkokatzea.

Inpaktu horien ondorioz, eta abiapuntu gisa hartuta Lompoulen ustiategi berriak izan dezakeen inpaktuaren analisia, gizarte zibileko hainbat

antolakunde eta bertako biztanle asko mobilizatu egin dira Lompoul inguruko ustiategi berriaren aurka.

Niayes Eremua Defendatzeko Kolektiboak (CDN, frantsesezko siglen arabera), Niayesko baratzezainen elkarte guztiak eta itsasertzeko udalerrietako herriak biltzen dituenak, memorandum bat egin du. Memorandum horretan, kontuan hartu beharreko inpaktu nagusiak eta auziak azaltzen dira, besteak beste: i) baratze-eremuak murriztea, baita horien errendimendua ere; ii) ekosistema suntsitzea; iii) baratze-perimetroen mailan lurra gazitzeko arriskua; iv) kaltetutako herrientzako kalte-ordainen konpromisoak ez betetzeko arriskua; v) kostaldean bizi diren gazteen pobrezia eta langabezia areagotzea.

Orain arte, enpresak ez du analisirik aurkeztu ekosistemen gaineko inpaktuari, inguruko herrien osasunari eta bizibideei buruz, ezta gizarte-eta ingurumen-ekintzako planik ere. Ustiategiak zuzenean eragingo lieke FADECekin lan egiten duten herritarrei, baita antolakunde horrek beste proiektu batzuetan klima-aldaketara egokitzeko hartutako neurriei ere, adibidez, dunen aurrerapena geldiarazteko panelak instalatzeari. FADECek CDNrekin lan egiten du eta inplikaturik dago proiektuaren inpaktu negatiboen analisisian. Azken hilabeteotan proiektuaren aurkako mobilizazio handiak egin dituzte tokiko komunitateek.

07. NEURRIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK, KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO ETA HARI EGOKITZEKO

07. NEURRIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK, KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO ETA HARI EGOKITZEKO

Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko identifikatutako neurrien artean honako hauek daude: i) lurzoruen kontserbazioa; ii) ongarri eta pestizida organikoen ekoizpena; iii) basoberritzea (tokiko barietate egokituekin egiten da maiz); eta iv) erreketak eta suteak murrizteko eta euri-urak kudeatzeko sentsibilizazioa. Epigrafe hau V. eranskinarekin osatzen da. Bertan, zenbait jardunbide egoki eta arintze- eta egokitze-neurriak biltzen dira, Kebemerren ingurumen osasungarria eta genero-ekitatea izateko eskubidea sustatzeko.

Nahiz eta neurri horiek praktikan jartzea oso hedatuta ez egon, guztiak atzeraelikatzen dira, sinergiak optimizatuz eta ekoizpen-sistema jasangarriak eta erresilienteak sortuz; sistema horiei esker, aldi berean, elikagaien eta diru-sarrereren iturriak dibertsifikatu daitezke, eta gaitasunak indartu daitezke, egokitzeari (tokiko barietateak, uren kudeaketa, etab.) eta arintzeari dagokienez (basoberritzea). Jarraian, praktika horietako batzuk eta horien balorazioa azalduko ditugu.

- Biopestizidak ekoiztea. Praktika hau, ikuspegi ekologikotik, izurriteak kontrolatzeko alternatiba bideragarri eta jasangarrietako

bat da; gainera, modu egokian gaitzen eta sustatzen bada, ibilbide luzea izan dezake. Dagoeneko abian dagoen praktika hau zabaltzeko, ekintza egokiak dira ezagutza tradizionala balioestea, espezie egokiak sartzea eta sentsibilizazioa eta prestakuntza teknikoa.

- Abereentzako elikagaiak ekoiztea, nekazaritzako azpiproduktuen bidez. Identifikatutako jardunbide egoki bat da, berritzaile samarra. Praktika hau emakumeekin lotzen da, eta potentzial handia du diru-sarrereren eta elikagaien iturriak dibertsifikatzeko. Baso-larregintza sistemak alternatiba errentagarriak dira abeltzaintza-ekoizpen jasangarrirako eta, bereziki, hausnarkari txikientzako, aprobeitza daitekeen bazka-biomasaren kantitate eta kalitate handiagatik. Zuhaitzen, zuhaixken eta uzta osteko hondakinen hosto-masaren berezigarri bat da mantenugaietan aberatsa dela.
- Lurzorua kontserbatzea eta ongarri organikoa ekoiztea. Prezioak igo egin direnez eta ez dagoenez baliabide ekonomikorik ongarri kimikoak eskuratzeko, praktika honek ere ibilbide garrantzitsua izan dezake, behar bezala gaitzen eta sustatzen bada.

- Teknologia egokitua erabiltzea. Ekoizpen-praktikek eboluzionatu egin dute, eguzki-plaken bidezko irrigazio-ura eskuratzearen bidez, eta, lehengaiei dagokienez (zura edo ikatza), hobeak eta eraginkorragoak diren sukaldeak erabiliz⁽³⁴⁾. Ezarritako praktika bat da ureztatze-motorrak bultzatzeko eguzki-plakak erabiltzea, eta emaitza onak lortzen ari da; izan ere, eragin biderkatzaileak ditu eta, horri esker, emakumeek ura bilatzeko denbora eta ahalegin gutxiago behar dute. Gainera, lagundu egiten du klima-aldaketa arintzeko eta hari egokitzeko gaitasunak indartzen. Ura izateko eta eskuratzeko oinarritzko eskubidea gai funtsezkoa eta erabakigarria da FADEC azken urteotan lantzen ari den arlo horretako ekintza eta proiektuetan.
- Funtsezkoa da ziurtatzea landareen eta animalien baliabide genetikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria, eta ekosistemak babestea —polinizatzea, izurriteak kentzea, karbonoa finkatzea eta mantenugaien eta baliabide hidrikoen zikloak arautzea eta antzeko zerbitzuak eskaintzen dituztenak— horrela erresistentzia garatzeko ingurumen-estreseko faktoreen aurrean, hala nola Kebemer departamentuko eremuei eragiten dietenak.

(34) Hobetutako sukaldeek, FADECen aurreko proiektuen arabera, ez dituzte aurreikusitako emaitzak eman, eta, beraz, komeni da balorazioa egitea ikasitakoari eta jardunbide on edo txarrei buruz, baldin eta beste proiektu batzuetan erabiltzea proposatzen bada.

- Basoberritzeko praktiken funtzio aniztasunak eta nekazaritzako eta baso-larregintzako sistemetarako trantsizioak aukera ematen dute KAra egokitzeko eta arintzeko gaitasunak indartzeko. Praktika horiek lotuta daude giza elikagaiak (fruta-arbolak), animalia-elikagaiak (tokiko espezie jakin batzuk, akazia, esaterako) eta ingurumen-zerbitzuak ekoiztearekin; potentzial handiko ekintza-ildo bat da, biziraupen-bitartekoak dibertsifikatzeko, erresilientzia komunitarioa indartzeko eta desertifikazioa eta biodibertsitatea geldiarazteko.

Baso-sistemen funtzio garrantzitsuenak honako hauek dira: i) giza elikagaiak (frutak, perretxikoak, etab.) eta animaliak ekoiztea; ii) energia ekoiztea; iii) izurrien aurka borrokatzeko balio duten bariatateak txertatzea; iv) haizerako hesi naturalak eta itzala sortzea, higadura saihesteko; eta iv) ingurumen-zerbitzuak, hala nola lurzorua finkatzea eta birsortzea, muturreko klima moderatzea, lehorteak eta uholdeak arintzea, karbonoa biltegitratzea, biodibertsitatea kontserbatzea eta laboreak polinizatzea. Jardunbide egokiak dira ere bazka-interes handiko tokiko bariatateak sartzea eta dibertsifikatzea.

- Emakumeentzako finantza- eta ekoizpen-baliabideak sustatzea funtsezko bektorea da ekoizpen- eta gizarte-sistemak eraldatzeko. KAren aurkako borrokan, emakumeek gero eta rol garrantzitsuagoa izango dute garapenerako, berrikuntzarako eta tokiko komunitateetan baliabideak sortzeko funtsezko

eragile gisa. Etxeko lanez gain, emakumeek gaitasun handia dute erresilientziarako eta klima-aldaketara egokitzeko, eta prestasun handia emakume-taldeekin ekintza kolektiboak egiteko. Emakumeen eskubideak garatzeko eta sustatzeko, garrantzitsuak dira euren finantza-inklusioko mekanismo komunitarioak (GIE, AVEC, tontinak) eta Interes Ekonomikoko Taldeen bidezko (GIE, frantsesezko siglen arabera) ahalduntze esperientziak.

- Era berean, jardunbide jasagarriak eta ondo bideratuak dira emakumeek garatutako aurrerapenak eta berrikuntzak, dela abeltzaintza-sistemetan (oilaskoen parasitoak baratzuriarekin kentzea, abereentzako elikagaiak ekoiztea nekazaritzako azpiproduktuetatik abiatuta), dela nekazaritza-sistemetan (merkatu berriak bilatzeko baratzeko produktuen ekoizpena dibertsifikatzea). Ur-iturri seguruak eta kalitatezkoak eskuratzeari esker animalien osasuna hobetuz, dieta dibertsifikatu eta biztanleria zaugarriarentzako proteina-ekarpena optimizatu daiteke, animalia-proteinaren eskaintza urria baita.
- FADECek eta NESIk emakume-taldee emandako laguntzek, zerealak eta bestelako produktuak (kafea, adibidez) eraldatzeko unitate eta makinak bidez, ondo funtzionatu dute, eta lagundu egin die emakumeei beren zereginak arintzen eta diru-sarrerak

gehitzen. Testuinguru horretan, logikoa denez, badira erronka batzuk, tokiko entitateek finantzatzeko ekintzen xede-talde gisa emakumeak sartzearekin lotuta. Erresilientzia sozialerako gaitasunak indartzeko estrategia guztien abangoardia eta bektore dinamizatzaile gisa hartzen dira, KAren ondorioak egokitzearen eta arintzearen esparruan.

- Alfabetatze funtzionala⁽³⁵⁾ FADECek abiatutako hainbat proiektutan egin da, eta funtsezkoa da lehen aipatutako ekimenen arrakastak bermatzeko. Komunitatearen alfabetatzea bitartekotzat hartzen da, emakumeen ahalduntzea eragiten duena eta aukera ematen duena negoziararako eta aurrezpen kolektiborako (tontina) ekimen txikiak kudeatzeko, gorago adierazi bezala.
- Aipatzekoa da, halaber, funtsezkoa dela emakumeen eskubideak babesten eta defendatzen dituen tokiko elkarte-sarea indartzea FADECen eta Senegalgo Legelarien Elkartearen artean ezarritako elkarlanaren bidez, eta ekimen berriei laguntzea, hala nola Kebemerreko emakumeen sareari, baita emakume lider komunitarioen (badienougokh) eta emakumeen sarearen inplikazioari ere; ekimen horiek guztiek bat egiten dute Emakumearen Etxearen jarduerak abian jartzean.

(34) La alfabetización funcional ha sido dirigida a mujeres mayores y se ha focalizado en orientar los aprendizajes básicos de lectura, escritura y contabilidad.

(35) Alfabetatze funtzionala adineko emakumeei zuzenduta egon da, eta bideratu egin da irakurketaren, idazketaren eta kontabilitatearen oinarriko ikasketak orientatzera.

08. ORIENTABIDEAK, INGURUMEN- ETA GENERO- IKUSPEGI INTEGRATUA TXERTATZEARI BURUZKOAK

08. ORIENTABIDEAK, INGURUMEN- ETA GENERO-IKUSPEGI INTEGRATUA TXERTATZEARI BURUZKOAK

Azterlan honetan azaldutako guztiaren artean, nabarmena da gero eta beharrezkoagoa dela helburu bikoitza duten ekintzak identifikatzea eta antolatzea: i) KAren egokitzea eta sistema erresilienteak sortzea; eta ii) genero-desparekotasunak murriztea eta emakumeen eskubideak eta ahalduak sustatzea. Ekintza horietan hasieratik txertatu behar dira haien onuradunak, baita gauzatzean eta jarraipena egin bitartean ere.

Bestalde, garrantzitsua da bi baldintzatzaile mota kontuan hartzea, ekintza berriak formulatzeko eta orientabide horiek aplikatzeko: lehenik eta behin, nazioarteko emaileen lehentasunak, garapen-ekintzak finantzatzeko beren eremu estrategikoak ezartzen dituztenak, eta, bestetik, erakunde publikoen lehentasunak, tokikoak eta maila nazionalakoak; batzuetan, ez dira nahitaez koherenteak herritarren premiekin, ikuspegi agroekologiko edo ekofeminista batetik KAren erresilientzia-, egokitze- eta arintze-gaitasunak indartzeari dagokionez.

Jarraian, zenbait orientabide zehazten dira, garapen iraunkorreko etorkizuneko esku-hartzeetan ingurumen- eta genero-ikuspegi integratua txertatzeari buruzkoak. Hala ere, ikuspegi holistikoa eta integrala sustatu nahi da arlo honetan garatzen diren esku-hartze guztietan, hainbat osagai txertatuta.

A) Ikusita klima-aldaketak izaera multidimentsionala duela, garrantzi izugarria duela eta jendartean eta ekonomian gero eta inpaktu handiagoa duela, funtsezkoak dira ezagutza eta kontzientzia handiagoa sortzen duten ekintza guztiak, maila politiko eta instituzionalean, gizarte zibilean eta tokiko komunitateetan. Ondorioz, garapen jasangarrirako lankidetzaren arloko edozein esku-hartzetan, sentsibilizazioa eta prestakuntza egin beharko liriteke klima-aldaketaren kausei, ondorioei eta inpaktuei eta arintze- eta egokitze-neurriei buruz. Halaber, funtsezkoa da giza eskubideen ikuspegi sendoa izatea, modu zatiezinean lotzen dituen biztanleria zaurgarrienaren oinarrizko eskubideak —hala nola hezkuntza, osasuna, elikadura eta ura eta saneamendua— eta ingurumen osasungarria izateko eskubidea (KAren ondorioak barne hartzen dituena).

Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza horiek prestatzaileen prestakuntzaren bidez diseinatu beharko liriteke, esku-hartze eremuetako tokiko komunitateetan erreplikatzeko, herri bakoitzean puntu fokalak ezarri eta horretan inplikatu lider sozialak eta asoziatiboak, "marraines de quartier" delakoak eta tokiko agintariak. Honen gai nagusia izan beharko litzateke KA emakumeen eskubideetan eta genero-berdintasunean duen eragina. Gizon eta emakumeek elkarrekin parte-hartzea oso

egokia da, baita tokiko eztabaidak sustatzea ere KAren aurkako borrokaren gai nagusiei buruz, dinamika parte-hartzaile eta inklusiboen bidez.

B) Aipatutako ikuspegi holistikoak eskatzen du proiektuen funtsezko beste gai bat izan behar dela eremu honetan egiten diren proiektuak hainbat ekintzaz osatuta egotea. Ekintza horiek, alde batetik, familien ongizatea hobetu behar dute (adibidez, elikagai nutritiboen bidez), eta, bestetik, emakumeen gizarteratzea eta inklusio finantzarioa hobetu behar dute, baita haien ekoizpen-baliabide jasangarriak ere (baratze-ekoizpenerako partzelak handitzea, ganaduentzako elikagaiak ekoiztea, oilaskoak haztea).

FADEC eta NESI antolakundeak aspalditik garatzen ari diren lan-ildoari jarraiki, badira bereziki garrantzitsuak diren zenbait ekintza.

- Ikuspegi emantzipatzailetik, emakumeen etxeko lanak arintzera bideratutako ekintzak, etxeko lan-karga murrizten duten tresnak eta makinak emanez (zerealak tratatzeko makinak, ura hartzeko sistemak).
- Hobetutako haziak sartzeari. Gaur egungo testuinguruan, helburu nagusia da laboreen errendimendua eta nutrizio-balioa

handitzea (hazi iraunkorrakoak, ziklo laburrak eta barietate egokituagoak hartuta). Horrek laborantza-egutegia aldatzea eskatzen du, ohiko ekoizpen-aldietatik kanpo ekoizteko eta ura modu eraginkorrean erabiltzeko, besteak beste.

- Emakumeen finantza-inklusioa sustatzea. Horretarako, jarraitu egin behar da emakume-elkarteen, kooperatiben eta Interes Ekonomikoko Taldeen eta haien beharretara egokitutako finantza-zerbitzuen aldeko apustua egiten. Horretarako, garrantzitsua da elkarlanean aritzea finantza-zerbitzuen hornitzaileekin eta interesa duten beste alderdi batzuekin. Hala ere, murrizketa sozial zabalagoek, hala nola etxe barruko negoziatio-boterearekin eta emakumeen egoera sozialarekin lotutakoek, finantza-inklusioak ahalduzko ekonomikoan duen eragina murrizten jarrai dezakete.
- Intzidentzia-ekintzak, emakumeek lurra eta ekoizpen-baliabideak eskuratzeko. Aktiboak eskuratzeko —batez ere lurra, eta, bereziki, kalitate oneko laborantza-lurra—, aukera ematen die emakumeei epe luzeagoko inbertsioak egiteko eta, potentzialki, familiaren baitan erabakitzeko ahalmena handitzeko. Etxeko kontsumorako ekoizpen-erabakietan emakumeek eragin handiagoa izateak labore-ekoizpen dibertsifikatuagoa eta etxekoen nutrizio hobea ekar lezake.
- Elkarlanean aritzea negozio-ideiak dituzten emakumeen aldeko enpresa-ekimenak sortzen lan egiten duten erakunde eta/edo antolakundeekin, sarbidea erraztuz ekipamendua, prestakuntza teknikoa, komertziala eta finantzarioa eskuratzeko. Horrelako ekintzek eragiteko potentzial handia dute epe ertain-luzera (2-3

urte) elikagaien eraldaketan, joskintzan edo artisautzan, eta, besteak beste, enplegua sortzen, emakumeen autonomian eta diru-sarreraren dibertsifikazioan laguntzen dute.

- Emakume zein gizonek informazioa eskuratzeko merkatuei eta alerta goiztiarreko sistemari buruz, eguraldiaren iragarpenak barne, nekazaritzako egutegia klima-aldakortasunera egokitzeko eta produktuen merkaturatzea mailaka antolatzeke gutxieneko azpiegitura eta biltegitratzeko baldintza teknikoekin.

Emakumeek autonomia handiagoa lortzeko eta aurrerapausoak emateko beren eskubideei eta gizonekiko berdintasun-kotei dagokienez, bide bat izan daiteke KAren aurkako borrokaren testuinguruan emakumeek protagonismo handiagoa izatea familia- eta ekoizpen-dimentsioan. Ildo horretan, tokiko komunitateei laguntzeko etorkizuneko ekintzei begira, kontuan hartu beharreko faktorea da emakumeek familiaburu gisa duten rol progresiboa —alargunak, dibortziatuak, landa-eremuko exodo-egoerak edo senarrek atzerrira emigratzea.

C) Funtsezko beste osagai bat eragin politikoa da, esku-hartzeetan inplikatzeko dituelako bai lider politikoak, bai KAren aurkako borrokaren eta genero-berdintasunaren esparruan eskumenak dituzten tokiko eta maila nazionalako agintariak. Ere horretako edozein esku-hartzetan aurrerapausoak emateko, funtsezkoa da haien parte-hartzea. Kebemer departamentuari buruzko azterlanean egiaztatu denez, oso defizit handia dago erakunde publikoen laguntza-programari eta -ekintzei dagokienez. Tokiko espazioetan eztabaidatzeko eta hausnartzeko guneak sortzea, tokiko komunitateek, elkarteek eta agintari

publikoek parte har dezaten, bide egokia izan daiteke azken horiek sentsibilizatzeko eta haien inplikazioa hobetzeko.

Eragin politikoko ekintzen helburuetan sartu behar dira komunitateak tokiko garapen-planetan parte hartzea eta tokiko gobernantza-mekanismoak abian jartzea, kontuan hartuta testuinguru bakoitzaren eta eremu agroekologikoen berezitasunak, eta emakumeek kalitatezko ekoizpen-baliabideak eskuratzeko.

D) Esparru horretan aurrerapausoak ematen saiatzeko, funtsezkoa da ere garapen iraunkorrari, ingurumenari eta generoari buruzko gaietan lan egiten duten hainbat antolakundek osatutako aliantzak artikulatzea. Aliantza horiei esker, eztabaidatu eta hausnartu egin daiteke esperientziei eta jardunbide egokiei buruz, eta ekintza zehatzak antola daitezke, eragin politikorako gaitasuna indartuz. Esan bezala, Senegalen lan-ibilbide garrantzitsua dago hainbat antolakunderen artean. Ikerketa-zentroekin saretuta lan egitea bide egokia da KAren aurkako borrokaren erronka zientifikoei eta teknologikoei heltzeko eta nekazaritza-ekologiaren ikuspegia garatzen eta berritzen jarraitzeko.

E) Oso garrantzitsua da, halaber, emakume eta gizonei prestakuntza eta sentsibilizazioa eskaintzea praktika agroekologiko egokiei buruz, bereziki nabarmenduz ekoizpen-sistema jasangarriago, erresilienteago eta klima-aldaketara hobeto egokitutako horien ingurumen-bideragarritasuna eta bideragarritasun ekonomikoa eta soziala uztartzen dituzten alderdiak.

Gizon eta emakumeei zuzendutako sentsibilizazioa areagotzeak lagundu egin dezake praktika agroekologikoak hartzeari eta hedatzeari buruzko pentsamoldea aldatzea. Lehenik eta behin, pizgarri ekonomikoak dira praktika berriak sartzea errazten dutenak. Bigarrenik, testuinguru horretan, ingurumen-jasangarritasunaren eta birsortze biologikoaren aldeko argudioak daude. Baliabideak modu jasangarri eta integralagoan aprobetxatzeko ereduarentako trantsizioa sustatzeko, garrantzitsua izan daiteke prestakuntza eta sentsibilizazioa uztartuko dituen ikuspegia izatea, praktika agroekologikoak ugaritzeak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izango dituen inpaktuei buruz. Agroekologiaren edo areagotze kimikoaren arteko aukeren aurrean, sentsibilizazioa funtsezkoa da aldaketarako eta kanpoko sargaiekiko mendekotasuna pixkanaka murrizteko, abiapuntu gisa hartuta tokiko baliabideen balorizazioa eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-sistemen integrazioa.

Garrantzitsua da, halaber, jardunbide egokiei buruzko prestakuntza teknikoarekin jarraitzea. Praktika horietako asko martxan daude jada, eta beste batzuk biderkatzeko potentzial handia dute. Horien artean, azpimarratzekoak dira lurzorua kontserbatzeko praktikak, biopestizidak eta bio-ongarriak ekoiztea, eta laboreak txandakatzea eta elkartzea. Laboreak elkartzeak aukera ematen du hazkuntza-zikloan zehar estres hidrikoak landareetan duen eragina arintzeko eta intsektuak kontrolatzeko, lekadunak (niébé) eta beste labore batzuk (kakahuetea, artatxikia eta bissap, besteak beste) elkartuta.

F) Ikuspegi holistiko eta integratzailearen barruan, funtsezkoa da funtzio anitzeko basoberritze-prozesuak sustatzea, baita nekazaritzako eta baso-larregintzako sistemarentako trantsizioa ere. Oso epe luzeko prozesuak dira, eta, hortaz, plan mailakatu bat egitea gomendatzen da, etapetan banatuta, tokiko barietateak sartzea/birsartzea optimizatzen saiatuz, barietate berriekin nahastuta, gizaki eta animalientzako elikagaiak eskuratzeko eta horrez gain bio-ongarriak eta biopestizidak ekoizteko, hainbat ingurumen-zerbitzu ematen diren bitartean.

Horretarako, komeni da sentsibilizazioa bereziki lantzea basoberritzeak izan ditzakeen helburuei eta erabilera eta praktika kolektiboen arteko konbinazio eta sinergieiei buruz. Horrela, erraztu egingo da nekazaritza, abeltzaintza, zurgintza, fruta, eztia, onddoak eta abar barne hartzen dituzten nekazaritza-basozaintzako eta baso-larregintzako sistema jasangarrietarako trantsizioa.

Trantsizioan eta baso-baliabideak aprobetxatzeko estrategia komunitarioetan kontuan hartu beharreko alderdiak dira parte hartzeko tresnak erabiltzea, hala nola mapak egitea eta lurralde-antolamendua, baita komunitateek beraiek kudeatutako finkak eta lursailak maneiatzeko planak ere.

G) Era berean, gomendagarria da kostu txikiko sistemak edo teknologiak erabiltzea, aldi berean jasangarriagoak diren ustiapen-ereduetarako trantsizioa bizkortzeko eta ingurumenari kalte egiten dioten praktiken inpaktua murrizteko, hala nola basogabetzea. Honako hauek dira ekintza nagusietako batzuk: i) energia-iturri berriztagarrietan oinarrituta ekoiztea, eta eraginkorrakoak izatea baliabideen erabilera; ii) abeltzaintza-ekoizpeneko eremuetan biogasa ekoiztea. Jarduera horrek ahalmen handia du, eta ondorio ugari ditu, adibidez, energia sortzea eta prozesuko azpi produktuak erabiltzea familien baratzeak ongartzeko; iii) eguzki-sare txikien proiektuak, elektrizitaterik gabeko hainbat herri hornitzeko (Kebemer departamentuko Thiolom herria, esaterako); iv) pakete teknologikoak, eguzki-energiak mugitutako ureztatze-sistemak areagotzeko eta ureztatze ura aprobetxatzeko (adibidez, tantakako sistema eta esku-hartzeko eremuetara egokitutako bestelako sistemak)⁽³⁶⁾; eta v) nekazaritza-produktuak eraldatzeko unitate txikiak, balioesteko eta hobeto kontserbatzeko, hala nola frutak eta barazkiak lehorteak.

(36) Bildutako informazioaren arabera, tantakako ureztatzeak potentzial nabarmena du, baina, arlo horretako esperientziatik abiatuta, komeni da ekintzaren hasieratik erabiltzaileen inplikazioa eta prestakuntza indartzea, inplikazio eta jabetze handiagoa eragiteko.

09. ONDORIOAK

09. ONDORIOAK

Honako ondorio nagusiak atera dira azterlanetik:

- Kebemer departamentuan (Senegal) defizit oso handiak daude azpiegiturretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta bizi-baliabideetan. Halaber, nabarmen hobetu daitezke erakundeen eta Administrazio Publikoaren ahalmena. Zaugarritasun handiko testuinguru honetan, COVID-19aren pandemiak markatua, KA inpaktu negatibo ugari izaten ari da. Gainera, Sahel osoan eta Afrikako beste eskualdeetan bezala, nekazaritza- eta artzaintza-gatazkak daude, eta KAK rol garrantzitsua betetzen du horietan, neurri handiagoan edo txikiagoan. Kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat da mineralen ustiapenak duen inpaktua (batez ere, zirkoiak) ingurumenean eta herritarren osasunean.
- Landa-eremuko emakume eta neskek (eskolatze-tasa txikiak dituztenak) pairatu dituzte KAREN kalterik handienak. Emakumeak arduratzen dira etxeaz, janaria prestatzeko ura eta egurra biltzeaz eta seme-alaben hezkuntzaz. Gainera, nekazaritza- eta arrantza-sektorean lan egiten dute, eta diru-sarrera osagarriak sortzen dituzte beste jardura batzuen bidez. Eragin nabarmena dute emakumeengan KAREkin lotutako fenomenoek eta muturreko aldaketa klimatologikoen, eta horiek daukaten eragin negatibo gero eta handiagoak nekazaritza- eta arrantza-baliabideen ekoizpenean, eta oro har, bizi-baliabideetan —aurrera doan landa-

eremuetako exodoarekin—. Emakumeek eskaintzen diete denbora eta ahalegin gehien (gero eta tenperatura altuagoak jasanez) eguneroko lanei eta baliabide naturalak eta ekonomikoak lortzeari, oso muturreko bizi-baldintzak dituzten testuinguruan.

Azken urteotako aurrerapen legalak gorabehera, arau eta ohitura jakin batzuk (herentziari, lurra eskuratzeari eta finantzaketari dagokienez, adibidez) kalte egiten diete genero-berdintasun handiagoari eta emakumeen oinarrizko eskubide batzuei (hezkuntzarako, osasunerako, elikadurarako, ura eta saneamendua eskuratzeko eta ingurumen osasungarria izateko eskubidea).

- Aurrekoarekin bat etorritik, Kebemerge emakumeak erabat jabetzen dira KAK ingurumenean eta beren bizitzetan dituen ondorioez, eta arintze- eta egokitze-neurriak premiaz hartzearen garrantziaz. Besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira: larre-eskasiara egokitzeko, ganaduarentzako hainbat elikagai martxan jartzea (nekazaritzako eta basogintzako azpiproduktuak); abeltzaintzako ustiategi erresilienteagoak garatzea (oilaskoak, ardiak eta ahuntzak haztea barne); iraupen-estrategiak, hala nola aurkako urtaro/baratzeko nekazaritza; eta diru-sarrera osagarriak sortzea, adibidez, saltoki txikien bidez.

Hona hemen identifikatutako beste jardunbide egoki batzuk:

biopestizidak ekoiztea, eguzki-plakak erabiltzea ureztatze-makinen funtzionamendurako, landareen eta animalien baliabide genetikoak kontserbatzea eta modu jasangarrian erabiltzea, basoberritze praktiken askotariko erabilerak eta nekazaritzako eta baso-larregintzako sistemetarako trantsizioa, eta baratze-produktuen ekoizpena dibertsifikatzea merkatu berriak bilatzeko. Era berean, aipagarria da FADECek eta NESIk emakume-taldeei emandako laguntza, zerealak eta bestelako produktuak eraldatzeko makinen eta unitateen bidez; alfabetatze funtzionala, FADECek ezarritako hainbat proiektutan egindakoa; eta tokiko elkarte-sarea indartzea, emakumeen eskubideak babestera eta defendatzera bideratuta.

- Garrantzitsua da ere nabarmentzea KAREN ondorioez jakitun izan arren, azterlanean parte hartu zuten emakume eta gizonek ez zuten, inola ere, loturarik ezarri ingurumen osasungarria izateko eskubidearen eta horrek oinarrizko beste eskubideetan duen eraginaren artean (elikadura eta nutrizio orekatua, ura eta saneamendua eskuratzeko, osasuna, hezkuntza). Hori, kontzientzia hartzeari eta ekintzei dagokienez, oso alderdi garrantzitsua da. Bestalde, ezjakintasun handia dago KAREN kontzeptuari buruzko azterlanaren xede diren tokiko komunitateetan (zertan datzan, zeintzuk diren kasuak eta nortzuk diren erantzuleak).

- Kebemerren genero-berdintasunaren eta emakumeen eskubideen arloko edozein aurrerapen oso baldintzatuta dago gizonen egitura patriarkal oso kontserbadore batengatik. Hainbat faktore ekonomiko, sozial, kultural eta erlijiosok funtsezko gaietan eragiten dute, hala nola familia-plangintzan, genero-indarkerian eta erresilientzia komunitarioan. Hain zuzen ere, emakumeen aldarrikapen-diskurtsoa autonomia ekonomiko handiagoa lortzera bideratuta dago argi eta garbi, eta bigarren mailan uzten du gizon eta emakumeen arteko berdintasun handiagoa.
- KAK komunitateetan, emakumeetan eta haien eskubideetan gero eta eragin handiagoa duenez, gero eta beharrezkoagoa da helburu bikoitzeko ekintzak identifikatzea eta antolatzea: (i) KARA egokitzea eta sistema erresilienteak sortzea; eta (ii) genero-desparekotasunak murriztea eta emakumeen eskubideak eta ahalduntzea sustatzea. Funtsezkoak dira ezagutza eta kontzientzia handiagoa sortzen duten ekintza guztiak, maila politikoan, erakundeetan, gizarte zibilean zein tokiko komunitateetan. Ekintza horietan hasieratik txertatu behar dira haien onuradunak, baita gauzatzean eta jarraipena egin bitartean ere.
- Gorago aipatutako zirkoiaren ustiapenari dagokionez, inpaktuak aztertzen jarraitzeaz gain (FADEC egiten ari den moduan) eta erantzun sozial kontsekuenteak antolatzeaz gain (egiten ari diren moduan), beharrezkoa da kanpoko antolakundearen laguntza finantzarioa tokiko eragileentzako, neurri zuzengarriak hartzeko

jada gertatzen ari diren ingurumen-inpaktuei erantzuteko. Lehenengo neurria, FADECek —aurrez NESIrekin egindako proiektu batean— instalatutako panelak berrikustea izan beharko litzateke, eta, hala badagokio, babes-panel berriak instalatzea inguruko eremuetan.

- Aipatutako ikuspegi holistikoak eskatzen du proiektuen funtsezko beste gai bat izan behar dela eremu honetan egiten diren proiektuak hainbat ekintzaz osatuta egotea. Ekintza horiek, alde batetik, familien ongizatea hobetu behar dute (adibidez, elikagai nutritiboen bidez), eta, bestetik, emakumeen gizarteratzea eta inklusio finantzarioa hobetu behar dute, baita haien ekoizpen-baliabide jasangarriak ere (baratze-ekoizpenerako partzelak handitzea, ganaduentzako elikagaiak ekoiztea, oilaskoak haztea).

Funtsezkoa da ere informazioa eskuratzea klimaren bilakaerari eta aldaketei buruz, nekazaritza-praktikak (ereitea) egokitzeko, eta hori posible da smartphonerako aplikazioei esker, baina Interneterako sarbidea erronka da, oraindik ere, landa-eremuko emakume gehienentzat. Beraz, beharrezkoa da informazioa eskuratzeko bideak hobetzea, eta funtsezko gaia da alerta goiztiarreko mekanismoena.

Halaber, eta FADEC eta NESI antolakundeak aspalditik garatzen ari diren lan-ildoari jarraiki, badira zenbait ekintza bereziki garrantzitsuak direnak, azterlanaren 8. atalean azaltzen direnak.

- Eragin politikoa ere funtsezko gaia da, esku-hartzean inplikatur KAREN aurkako borrokaren eta genero-berdintasunaren esparruan eskumenak dituzten lider politikoak nahiz maila nazionaleko eta tokiko agintariak. Horrez gain, funtsezkoa da: (i) aliantzak artikulatzea garapen jasangarriari, ingurumenari eta generoari buruzko gaietan lan egiten duten antolakundearen artean; (ii) emakume eta gizonentzako prestakuntza eta sentsibilizazioa praktika agroekologiko egokiei buruz; (iii) funtzio anitzeko basoberritze-prozesuak babestea eta trantsizioa egitea nekazaritzako eta baso-larregintzako sistemetara; eta (iv) kostu txikiko sistemak edo teknologiak erabiltzea, aldi berean ustiapen-eredu jasangarrietarako trantsizioa bizkortzeko eta ingurumenaren gaineko praktika kaltegarrien inpaktua murrizteko, hala nola basogabetzea.

I. ERANSKINA: AZTERLANAREN FASEAK ETA TRESNA METODOLOGIKOAK

I. ERANSKINA: AZTERLANAREN FASEAK ETA TRESNA METODOLOGIKOAK

BULEGO-FASEA

Fase horretan, hainbat iturri bibliografiko eta FADECek, Senegalgo Juristen Elkarteak eta NESIk elkarlanean egindako proiektuei buruzko dokumentazio guztia aztertu ziren, baita lanerako plan metodologikoa ere.

LANDA-LANAREN FASEA

Landa-lana FADECek Kebemerren duen egoitzan egindako lan-saio batekin hasi zen. Bertan, landa-lanerako planteatutako metodologia aurkeztu zitzaizen taldeko kide guztiei, eta agenda eta tresna metodologikoak berrikusi ziren. Inkestaren galde-sorta xeheki berrikusi zen terminoak eta kontzeptuak doitzeko eta wolofera itzultzeko eta, horrela, inkestaren xede-taldeak eta eztabaida-taldeek funtsezko kontzeptuak eta galderak ulertzen zituztela bermatzeko.

Banakako elkarrizketak

Banakako hainbat elkarrizketa egin ziren (ikus II. eranskineko zerrenda

xehatua) Kebemergeo gizarte zibileko eragileekin eta FADECen kide diren erakundeekin, hala nola Senegalgo Emakume Juristen Elkartearekin (AJS) eta Kebemergeo emakume aktibisten sarearekin. Halaber, Estatuko zerbitzu deszentralizatuekin ere zenbait topaketa eta bilera egin ziren, esaterako, ur- eta basogintza-sailekin, tokiko garapen sailarekin, nekazaritzakoarekin, arrantzakoarekin eta tokiko agintariekin. Komunitateetako lider sozialekin ere elkarrizketak egin ziren.

Elkarrizketa erdi-egituratuek bi helburu izan zituzten: batetik, tokiko eragile publikoek klima-aldaketari aurre egiteko duten inplikazio-maila eta garatutako estrategiak ezagutzea; eta, bestetik, klima-aldaketak emakumeengan duen eraginari buruz funtsezko eragile horiek duten ezagutza-maila aztertzea.

Grupos focales

Emakumeekin eta gizonekin hainbat foku-talde (FT) antolatu ziren, herri desberdinetan klima-aldaketak emakumeen hiru rol nagusietan nola eragiten duen identifikatzeko helburuarekin (lan produktiboan, erreproduktiboan eta soziokomunitarioan, hain zuzen). Nogaye Niang-ek, FADECeko genero-arduradunak, lan horiek egiten lagundu zuen, komunikazioarekin eta itzulpenarekin batez ere.

FTetan honako gai hauek landu ziren:

- Klima-aldaketa (KA) kontzeptuaren gaineko ulermen-maila ezagutzeko galderak egin ziren, klima-aldaketaren ondorioen gaineko kontzientziazioa eta jakintza ezagutze aldera. Halaber, KAren ardura nori egozten zitzaion aztertu nahi zen.
 - Klima-aldaketari lotutako kontzeptuak eta arazoak identifikatzea.
- Klima-aldaketak emakumeen roletan (produktiboan, erreproduktiboan eta soziokomunitarioan) eragiten dituen ondorioak identifikatu ziren.:
 - Lan erreproduktiboa: etxeko-lanen karga; (gizonek eta emakumeek egiten dituzten zereginen banaketa; etxeko-lanen errutinaren deskribapena egunerokoa/okupazioa/ordua/bidaia; familiako kideen zaintza); osasunean duen eragina; hezkuntza jasotzeko aukera; etxean seme-alaben kopuruaren gainean erabakiak hartzeko gaitasuna (familia-plangintza), genero indarkeria...

- Lan produktiboa:
 - Nekazaritza-jardueretan (lehen mailakoa; bigarren mailakoa) eta jarduera ekonomiko osagarrietan parte hartzea: emakumeek jarduera ekonomikoak dibertsifikatzeko hartutako estrategiak identifikatuz (AVEC, mikrokredituak= enpresa txikiak; jarduerak dibertsifikatzeko aukerak handitzeko ikasteko borondatea)
 - Jabetza izateko aukerak eta baliabideen kontrola
- Lan soziokomunitarioa: klima-aldaketak emakumeen ahalduntze prozesuetan duen eragina
- Praktika endogenoak identifikatzea, egokitze eta arintze neurriak;
- Gizonekiko elkarreragina: nola ikusten duten gizonek gai hau, nola eragiten duten genero-harremanek (gai horiei heltzeko espazioak egotea)

EJP inkesta

Aholkularitza-taldeak ezagutzak, jarrerak eta praktikak (EJP) aztertzeko inkesta bat prestatu zuen, IV. eranskinean zehazten den bezala.

TXOSTENA IDAZTEKO FASEA

Landa-lana egin ondoren, bildutako informazioa sistematizatu eta aztertu zen. Ondoren, txostenaren zirriborroa egin zen eta NESIrekin eta FADECekin partekatu.

Bi erakundeekin online bilera bat egin zen, ikerketaren zirriborroaren gaineko iruzkinak eta oharrak jasotzeko. Bilera horren ostean, aholkularitza-taldeak egokitzat jo zituen iruzkin guztiak txertatu zituen eta erakundeei bigarren bertsio bat helarazi zien, azken bertsio gisa.



II. ERANSKINA: BIBLIOGRAFIA

II. ERANSKINA: BIBLIOGRAFIA

Klima-aldaketari buruzko dokumentuak eta erreferentziak

- Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldearen txostenak (IPCC): <https://www.ipcc.ch/documentation/>

Erreferentziako dokumentu ofizialak

- Charte Africaine des droits humains et des peuples Charte de Banjul <http://www.droit-afrique.com/upload/doc/autres-organisations-africaines/Afrique-Charte-des-droits-de-l-Homme.pdf> (Première norme régionale qui reconnaît dans son article 24 le droit des peuples à un environnement satisfaisant)
- Déclaration Universelle des droits humains: le droit à l'environnement est une condition sine qua non pour la garantie et le respect des droits des femmes
- Agence Nationale de la Statistique et de la Démographie, Ministère de l'Économie, des Finances et du Plan, (ANSD)

- Enquête sur l'emploi, la rémunération et les heures de travail (EEHR), note d'analyse 2022, consultée le 18 août 2022 sur: <https://www.ansd.sn/Indicateur/enquete-sur-lemploi-la-remuneration-et-les-heures-de-travail-eerh-0>
- Situation économique et sociale du Sénégal (2019) <https://www.ansd.sn/rapports-donnees/themes/situation-economiques-et-sociales/ses-nationales>
- Situation économique et sociale de la région de Louga, Service Régional de la Statistique et de la Démographie de Louga https://www.ansd.sn/sites/default/files/2022-12/SES_Louga_2019.pdf
- Programme National des Domaines Agricoles (PRODAC) <https://www.prodac.sn/>
- Stratégie de Développement Économique et Social, SNEDES, 2013-2017
- Plan Sénégal Émergent (2014-2025) <http://www.senegal-emergent.com/>

- République du Sénégal (2015). Contribution prévue déterminée au niveau national au changement climatique.
- République du Sénégal (2017). Document de politique foncière

Generoaren eta emakumeen eskubideen arloko erreferentziako dokumentuak

- Stratégie Nationale pour l'Égalité et l'Équité de genre (2016-2026) <https://www.csoplcp.gouv.sn/pasneeg/documents/SNEEG2.pdf>
- Plan pour l'égalité et l'équité de genre (2016-2025)
- Plan départemental de prévention et lutte contre la violence faite aux femmes
- Projet d'Appui aux politiques agricoles (www.papa.gouv.sn)

II. ERANSKINA: BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA

Biehl, Janet, *RethinkingEcofeministPolitics*, Boston, South End Press, 1991.

Biehl, Janet. « Féminisme et écologie, un lien « naturel » ? » *Le Monde diplomatique*, 1 mai 2011.

BurgartGoutal,J, 2020, Être éco-féministe : Théories et Pratiques. L'échappée, Collection Versus.

CSE (2015). Rapport sur l'État de l'Environnement (REE) du Sénégal. Edition 2015. Centre de Suivi Ecologique (CSE).

Colen, L., M. Demont, et J. Swinnen (2013), Participation des petits exploitants aux chaînes de valeurs agricoles: Le cas de la production locale de riz au Sénégal, Dans : *Reconstruire le potentielalimentaire de l'Afrique de l'Ouest*, A. Elbehri (ed.), FAO/FIDA, <https://www.fao.org/3/i3222f/i3222f.pdf>

Clavel, D, Guétat-Bernard, H et Verger, E, « Des céréales locales pour la transition climatique et alimentaire. Pratiques paysannes et pratiques féminines sur les sorghos et les mils du Sahel sénégalais au Deccan indien. », *Vertigo - la revue électronique en sciences de*

l'environnement, Volume 22 numéro 1 | Avril 2022, mis en ligne le 20 avril 2022, consulté le 21 juillet 2022. URL: <http://journals.openedition.org/vertigo/35118>

Crenshaw, K. W. (2017). *On intersectionality: Essential writings*. The New Press.

D'Eaubonne, F. (2018), *Écologie et féminisme. Révolutionou mutation ?* Libre & Solidaire

Diouf Ibrahima Faye, DIONGUE, Momar, Timera, Mamadou Bouna, 2020, *L'agro-écologie dans la zone des Niayes : expériences d'une transition dans les communes de Diender Guedj et de Kayar (Sénégal)*, *Revue Ivoirienne des géographies des savanes*, n°8, juin.

EndaPronat (2017b). Fiches de capitalisation sur l'agriculture écologique et biologique au Sénégal de 2015 à 2017

FAO (2020). Plateforme des connaissances sur l'agroécologie, Janvier 2020. [https://www.fao.org/agroecology/knowledge/10-elements/efficiency/fr/?page=61&ipp=5&tx_dynalist_pi1\[par\]=YToxOntzOjE6IkwiO3M6MToiNSI7fQ==#:~:text=Le%20programme%20alimentaire%20pour%20les,%C3%A9t%C3%A9%20](https://www.fao.org/agroecology/knowledge/10-elements/efficiency/fr/?page=61&ipp=5&tx_dynalist_pi1[par]=YToxOntzOjE6IkwiO3M6MToiNSI7fQ==#:~:text=Le%20programme%20alimentaire%20pour%20les,%C3%A9t%C3%A9%20)

<port%C3%A9%20%C3%A0%2080%20000>, Consulté le 15 juillet 2022.

FAO, (2012). Le diagnostic rural participatif pour l'analyse de genre. <https://www.fao.org/3/i3492fr/l3492FR.pdf>

Ndèye Fatou F, Gérard, F, Sall, M, Affholder, F, Roudier, P. (2021). *Pauvreté et inégalités en milieu rural dans le centre du Sénégal : état des lieux, causes et conséquences*, communication présentée Présentéaux 14èmes journées de la recherche en sciences sociales (JRSS) INRAE, SFER, CIRAD

Gueye Diagne, Y, (2008), *Genre, changementsclimatiques et sécuritéhumaine, Le cas du Sénégal*, ENDA.

IPES Food, *Valeur(s) ajoutée(s) de l'agroécologie: déverrouiller le potentiel de transition en Afrique de l'Ouest*, juillet 2020.

Maisonnave, H., &Mamboundou, P. N. (2022). *Agricultural economic reforms, gender inequality and poverty in Senegal*. *Journal of Policy Modeling*

Mbaye, A. A., Lefèvre, F. G., Sarr, A., Sambou, C., Gueye, A., Gueye, F., ... & Dieng, M. (2022). A Situational Analysis of Small-Scale Fisheries in Senegal: From Vulnerability to Viability.

Maris, V. (2009). Quelques pistes pour un dialogue fécond entre féminisme et écologie. *Multitudes*, (1), 178-184.

Moser, C. O. (1989). Gender planning in the ThirdWorld: meeting practical and strategicgenderneeds. *World development*, 17(11), 1799-1825.


Nbukpo, Kako, (2022). Une Une solution pour l'AfriqueDu néoprotectionnisme aux bienscommuns, Paris, Odile Jacob.

ONU Sénégal, Les femmes, moteursclefs du développement durable, *Revue SNU Magazine*, Mars 2022.

Sylla, I. (2019). Ateliers zonaux de consultations locales sur la transition agroécologique au Sénégal. Rapport de synthèse. Dynamique pour une transition agroécologique au Sénégal, (DyTAES). 23p.

Sylla, I. et Touré, O, Étude de faisabilité, partenariat multiacteurs pour la transition agro-écologique, ENDAPRONAT

Timothy J. Krupnika,b, Carol Shennan b, William H. Settle c, Matty Demont d, Alassane B. Ndiaye e,f, JonneRodenbur (2012) Améliorer la production du riz irrigué dans la Vallée du Fleuve Sénégal à travers l'innovation et l'apprentissage par l'expérience, FAO, <http://www.fao.org/3/a-i2904f.pdf>



III. ERANSKINA: ELKARRIZKETAK ETA FOKU-TALDEAK

III. ERANSKINA: ELKARRIZKETAK ETA FOKU-TALDEAK

FADECeko talde osoarekin bilera
EJP inkestaren inguruko lan-sakoa FADECeko taldearekin
FADEC taldeko kideekin banakako elkarrizketak

Banakako elkarrizketak FADEC-eko kide diren gizarte zibileko antolakundeekin eta beste eragileekin

- ASSOCIATION DES FEMMES JURISTES (Emakume Juristen Elkarte) - Mme. Diamé Kémeltou Tambédou
- RÉSEAU DES FEMMES ACTIVISTES DE KÉBÉMÉR (Kebemerreko Emakume Ekintzaileen Sarea) - Mme Oulimate Kébér
 - KOMUNITATEETAKO KIDEAK
 - «Marraines de quartier» (woloferaz badienougokh, euskaraz <auzoetako amabitxiak>)
 - Aurrezki eta Kreditu Mutualitatea (Mutuelle Épargne et Crédit MEC-FADEC)
 - El Hadji Amadou Guèye, Eragiketa arduraduna
 - M. Pape Fall, Imana, Kebemer

Banakako elkarrizketak tokiko agintariekin eta estatuko zerbitzu deszentralizatuekin

- PREFETARI ATXIKIA, Kebemer
- UR ETA BASO ZERBITZUKO ARDURADUNA, M. Omar Ngom
- TOKI GARAPENeko ZERBITZUAREN ARDURADUNA, M. Balla Kanté
- KEBEMER DEPARTAMENTUKO KONTSEILUA
 - M, AdjiNdiaye, Programa arduraduna
 - CheikhMbacké, tokiko garapenaren arduraduna
- ABELTZAINZARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA, M Sengue Ndaw, Abeltzaintza eta ekoizpen arduraduna
- KEBEMER DEPARTAMENTUKO GARAPEN KOMUNITARIO SAIL ARDURADUNA, M.Dahirou Djibri IKébé
- LOMPUL VILLAGE-KO OSASUN ZENTROA
 - Mamé Bintadiéme
- DIOKUL-EKO UDALA
 - Alkatea
- THIOLOM FALL-EKO UDALA

- NGANDIOUF-EKO UDALA
 - NdiayaDiallo, Alkatea
 - Aminata Benguidiaf, GIE federazio baten lehendakaria

Focus group (Foku taldeak)

1. YODDI DAWA (10 emakume; 6 gizon)
2. LOMPOUL-VILLE (11 emakume)
3. KEBEMERREKO AUZOA (izena?)
4. DIOKHOUL (6 emakume)
5. TAIBAMAR (14 gizon)
6. THIOLOM FALL (23 emakume)
7. GATTY NING (6 emakume)
8. ARRANTZA SEKTOREKO EMAKUMEAK (arrainaren prozesamendua) Lompoul-sûr-Mer herrian, FADECeko genero arduradunak dinamizatuta.

IV. ERANSKINA: EJP INKESTAREN EMAITZAK

IV. ERANSKINA: EJP INKESTAREN EMAITZAK

Azterketarako espresuki diseinatutako ezagutzei, jarrerei eta praktikei buruzko inkestaren (EJP) bidez, programen plangintza eta diseinua, intzidentzia, gizarte-mobilizazioa, analisia eta ebaluazioa indartzeko intsumo erabilgarriak sortzera bideratutako informazioa bildu zen.

Inkestaren helburuak honakoak izan dira:

- i. informazioa biltzea interbentzio-zonen egungo testuingurua hobeto identifikatzeko;
- ii. inplikaturako alderdi guztien arteko elkarriketa erraztuko duen tresna bat edukitzea;
- iii. interbentzio-zonen identifikaziorako eta diagnostikorako testigantza baliagarriak biltzea

Inkesta galdera itxiekin, aukera anitzeko galderekin eta galdera irekiekin egituratu zen. Inkesta bakarra diseinatu zen, batez ere emakumeentzat eta, kasuren batean, gizonentzat. Inkestak aurrez aurre egin ziren, urriaren 17tik 21era bitarteko astean egindako bisitan.

Inkesta egiten aholkulari-taldeko pertsona batek eta FADECeko taldeko hiru pertsonak hartu dute parte, aholkularitza-taldeak orientazioa eta prestakuntza eman ondoren.

Jarraian, EJP inkestaren bidez bildutako informazioa jaso da. Inkestan 41 pertsonak hartu zuten parte. Inkesta gehienak emakumeei egin zitzaizkien (41etik 37). Batez besteko adina 38,9 urtekoa izan zen eta parte-hartze hartzaileek 20 eta 70 urte bitarte zituzten.

Etxe bakoitzeko batez besteko pertsona-kopurua 12,6 zen (emakumeen batez bestekoa, neskak barne, % 50,5 da). Galdetutako emakumeen % 33,3k adierazi zuen familia-buruak zirela. Inkestatutako pertsonen prestakuntza-mailari dagokionez, % 7k oinarrizko ikasketak ditu, % 15ek lehen mailako ikasketak, % 42k bigarren mailako ikasketak, % 17k unibertsitate-ikasketak eta % 17k eskola koranikoan ikasi du, hezkuntza formalaren alternatibatzat jotzen dena.

Inkestak Ngandiouf (10 inkesta), Yoddi (5), Diokoul (8); Kebemer (8); eta ThiolomFall (9) eskualdeetan egin ziren.


Ondorioak azaltzeko, jasotako informazioa eta azterketa honako atal hauetan egituratzen da: Ezagutzak; Jarrerak; eta Pratikak.

EZAGUTZAK

Klima-aldaketaren ondorioak

Inkestatutako pertsonen % 100ek adierazi zuten klima-aldaketari lotutako arazo bat dagoela, eta bizirauteko estrategiak aldatzen dituzten hainbat eragin identifikatu ziren komunitate-mailan.


Uste duzu zure komunitatean klima-aldaketarekin lotutako arazoak daudela?



Klima-aldaketaren INPAKTUA GENERO-EKITATEAN, KEBEMER DEPARTAMENTUAN (SENEGAL)

Inkestatuen % 50 inguruk klima-aldaketaren ondorio nagusizat jo zuten ingurunearen eta itsasoaren tenperaturaren igoera. % 30ek, gutxi gorabehera, euri-patroiaren irregulartasuna aipatu zuten. % 10 inguruk uste zuten haize bortitza dela klima-aldaketaren ondorio nagusietako bat, eta % 7k izurriteen eta gaixotasunen ugaritzea identifikatu zuten. Neurri txikiago batean aipatu ziren ingurumenaren degradazioa eta biodibertsitatearen murrizketa, lurzoruen kalitatearen pobretzea eta desertifikazioa handitzea.

Zeintzuk dira klima-aldaketaren ondorio nagusiak?




EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- La rareté des produits halieutiques / arrantza-baliabideen eskasia / pauvreté des sols on ne récolte plus rien / lurzoru txiroak eta uztarik ez jasotzea
- La chaleur, la baisse de rendements / beroa eta errendimendua txikitzea.

Inkestatutako pertsonen % 92k adierazi zuen klima-aldaketaren ondorioak areagotu egin direla azken urteotan.

Zure ustez, klima-aldaketaren ondorioak areagotu egin dira azken urteotan?




EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- La pauvreté des sols. La baisse de rendements / lurzoru txiroak eta errendimendu txikia. Ravageurs qui détruisent les récoltes / uztak suntsitzen dituzten izurriteak.
- Rareté des produits halieutiques, la forte chaleur on perd beaucoup de notre bétail par défaut d'aliments pour les nourrir / arrain-eskasia, bero handia eta artaldea galtzea elikagairik ez dagoelako.

Klima-aldaketak tokian-tokian dituen eraginak

Klima-aldaketaren eraginak, komunitateei epe luzean eragiten dieten ondorio gisa hartuta. Erantzunen % 47k laborantza-, abeltzaintza- eta arrantza-ekoizpen txikia identifikatu zuten klima-aldaketaren inpaktu nagusizat. % 20k antzeman zuen pertsonen eta animalien gaixotasunak ugaritu izana. % 15ek zur-falta identifikatu zuen. Neurri txikiagoan identifikatu ziren prezioen gorakada eta elikagaien segurtasun eza handitzea.


Zure ustez, zeintzuk dira klima-aldaketaren inpatu nagusiak zure komunitatean?



Ingurumena kontserbatzeko konponbideei buruz

Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko eta horiek arintzeko irtenbideei dagokienez, % 62k elikagaiak ekoizteko jardunbide egokiak proposatu zituen, besteak beste, lurzoruen kontserbazioa, ongarrien ekoizpena eta pestizida organikoak. Proposatutako irtenbideen % 30 basoberritzearekin lotuta daude; eta kasu askotan, gainera, basotze hori egokitutako eta tokiko barietateekin egin beharko litzatekeela zehaztu zen.

Zeintzuk dira klima-aldaketara egokitzeko eta arintzeko irtenbide nagusiak?



Baso-sartzeari dagokionez, azpimarratzekoa da inkestatuen % 42k adierazi zutela horrek ganaduentzako eta pertsonentzako elikagai gehiago ekoizteko aukera ematen diela; % 22k aipatu zuten basoberritzeak beroa arintzen duela; % 22k uste zuten ingurumena babesten duela; eta % 30ek esan zuten basotzeak euri-kantitatea handitzen duela. Inkestatuen % 17k erantzun zuten basoberritzeak berotzeko/kozinatzeko egur gehiago izatea ahalbidetzen duela. Inkestatuen % 15ek aipatu zuten baso-berritzeak lurzorua finkatzen eta kontserbatzen laguntzen duela. Neurri txikiagoan jasotako beste erantzun batzuk haizearen eragina murriztea, uztak babestea eta itsasoaren aurrerapena geldiaraztea izan ziren.

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK


- Alimentation du bétail, bois de chauffe, fumure pour nos jardins / Abereentzako elikagaia, berotzeko egurra eta baratzeetarako ongarria.
- Protection de l'environnement, fixation des sols, meilleurs rendements / Ingurumena babestea, lurzorua finkatzea eta errendimendu hobea.

Neurri txikiagoan proposatu ziren erretzeak eta suteak murrizteko sentsibilizazioa eta euri-uren kudeaketa.

Bio-ekoizpena eta agroekologia

Erantzunen % 65ek bio-ekoizpen edo agroekologia kontzeptuaren gaineko ezagutza mugatua/partziala adierazten dute, eta horien % 65ek badaki produktu kimikoen erabilera txikitzen duen eta organikoena handitzen duen nekazaritza mota dela; hala ere, kontzeptua ezagutzen zutela adierazi zuten pertsonen % 35ek uste zuten intsumorik gabeko ekoizpena dela.

Zer da bio-ekoizpena edo ekoizpen agroekologikoa?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Engrais organiques; pas de moyen pour acheter les intrants ou produire sans mettre certains produits vendus sur les marchés / ongarrri organikoak, ez dago bitartekorik sargaiak erosteko edo merkatuan saldutako produktu (kimiko) jakin batzuk erabili gabe.

Alfabetatzearen garrantzia klima-aldaketaren testuinguruan

Irakurtzeko eta idazteko gaitasunaz gain, erantzunen % 43k adierazi zuen, gainera, alfabetatzeak negozio txikietarako kalkuluak egiteko aukera ematen duela, baita aurrezpen kolektiboko ekimenak kudeatzeko baliozko oharrak egiteko ere. Erantzun minoritario batzuek aitortu zuten komunitatearen alfabetatzeak telefonoak erabiltzeko eta kanpokoekin komunikatzeko aukera ematen duela, eta,

era berean, emakumeen lidergoa handitzeko aukera ematen duela.

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Développement d'activités génératrices de revenus - gestion des moulins - savoir calculer / diru-sarrerak sortzeko jarduerak garatzea, erroten kudeaketa, kalkulu-ezagutzak. Faire le suivi des fonds issus de l'exploitation des moulins / erroten ustiapeneko funtsen jarraipena egitea.
- Apprendre à lire et à écrire, à parler en public, à calculer / irakurtzen, idazten, jendaurrean hitz egiten eta kalkulatzeko ikastea.

Estatuaren eta beste eragile batzuen babesa

Inkestan parte hartu zuten pertsonen % 67k onartu zuten estatuak ez duela esku-hartu ingurumenaren babesaren arloan, eta gutxi errepikatu diren erantzun batzuk onartu zuten estatuaren babesa insumo kimikoen eta hazien banaketara mugatzen dela.

Horietatik % 45ek aitortu zuten jasotako laguntza bakarra FADECek basoberritzerako (lurzoruak finkatzea eta haizea arintzea), alfabetatzerako eta diru-sarrerak sortzeko jarduerentzako emandakoak zirela.

Jasotako laguntza bakarra FADECek emandakoa dela onartzen duten pertsonen artean, % 40k babes handiena basoberritzean ikusten dute; % 13k baratze-ekoizpenerako sargaieki identifikatzen dute laguntza; % 20k baratze-ekoizpenerako putzu eta perimetro irrigatuen


eraikuntzarekin; eta beste aukera minoritario batzuk zerealen eraldaketa, alfabetatzea eta diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak eta hegazti-ekoizpeneko programak identifikatu zituzten.

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- L'État non. Le partenaire Fadec nord / Estatua ez, FADEC bazkidea.
- Genero berdintasuna

Genero-berdintasunaren arloan zer jakintza eskuratu duten galdetuta, erantzun zutenen % 58k adierazi zuen gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasunaren printzipioak ezagutzen zituela; % 26k adierazi zuen ez dagoela eskubide-berdintasun hori eta hainbat faktorek eragozten dutela emakumeek eskubide guztiak izatea. Azkenik, % 14k aitortu zuen ez zuela ezagutzarik eskuratu arlo horretan.

Zer ezagutza duzu genero-berdintasunaren inguruan?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK


- Les femmes jouent un rôle important dans la société. Elles méritent l'égalité des sexes. L'égalité des sexes a contribué à la parité: égalité des chances dans les instances / Emakumeek eginkizun garrantzitsua dute gizartean. Genero-berdintasuna merezi dute. Genero-berdintasunak parekidetasunean eta aukera-berdintasunean lagundu du instantzietan.
- Jusqu'ici pas d'égalité entre les hommes et les femmes. La femme n'a toujours pas le pouvoir de décision- discrimination des femmes dans les lieux de travail. Sur le foncier: les femmes n'héritent pas de terre - les hommes ont plus de pouvoir que les femmes. / Unera arte, ez dago berdintasunik gizonen eta emakumeen artean. Emakumeek ez dute oraindik erabakitze ahalmenik, eta lan-eremuan emakumeek diskriminazioa pairatzen dute. Lurra eskuratzeari eta jabetzari dagokionez, emakumeek ez dute lurra jaraunsten, eta gizonen emakumeek baino botere handiagoa dute.
- Plus de capacités de résilience des femmes face aux chocs / Krisien aurrean, emakumeek erresilientzia-gaitasun handiagoa dute.

GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK

- La religion recommande le respect de tous et l'Islam est le 1ère à reconnaître des droits aux filles / Erljioak guztion errespetua gomendatzen du, eta islama da nesken eskubideak aitortzen lehena.

Komunitatean emakumeen eskubideak erabat egikaritzea eragozten duten faktoreei dagokienez, nabarmentzekoa da erantzun zutenen % 44k adierazi zutela emakumeen eskubideak erabat baliatzeko oztopo nagusiak erlijioa, familia-kodea, paternalismoa, eskolatuta ez egotea eta emakumeen mendekotasuna direla; erantzunen % 22k adierazi zuten oztopo nagusiak gizonen ezjakintasuna eta ezezagutza zirela; % 16k adierazi zuten traba nagusiak emakumeen botere ekonomiko eskasa eta gizonekiko duten mendekotasuna direla; % 13k aipatu zuten ez dagoela eragozpenik eta % 11k ez zituztela oztopoak ezagutzen.

¿Cuáles son las principales barreras para el pleno ejercicio de la igualdad de género?




EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- La religion, la culture, le Code de la famille, la puissance paternelle / Erljioa, kultura, familia-kodea eta botere paternalista.
- Finantza-inklusioko eta mikro-kredituetarako sarbidea

Baliozko erantzunen % 58k adierazi zuten ezagutzen zituztela kredituak eskuratzeari eta finantza-inklusioko abantailak; erantzunen % 27k adierazi zuten ez zutela gaiaren berri; eta % 13k adierazi zuten kredituak eskuratzeko zailtasunak zituztela, bereziki, emakumeek.

Zer abantaila ditu finantza-inklusiokoak?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK


- Faible accès aux financements par les femmes- détournement d'objectifs par les femmes, les taux d'intérêt élevés, manque de connaissance ou de formation sur la gestion des financements / Emakumeen sarbide urria finantzaketara: helburuak desbideratzea, interes-tasa altuak, finantzaketaren kudeaketari buruzko ezagutza edo prestakuntza falta.
- Importance accès au crédit pour l'autonomisation / kredituak eskuratzearen garrantzia emakumeen autonomiarako.

GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK

- Je dispose d'un compte bancaire, je dépose des demandes de crédits / Banku-kontu bat dut eta kredituak eskatzen ditut.

Elkarte, kooperatiba edo interes ekonomikoko talde bateko kide izatearen abantailei dagokienez, jasotako erantzunen % 89k abantailak aitortzen eta identifikatzen zituzten finantzaketa eta aurrezkoa eskuratzeko, gizarte-kohesiorako eta emakumeek diru-sarrerak eragiten dituzten jardueretara sarbidea izateko ahalduzko; baliozko erantzunen % 11k aitortu zuten ez zutela abantailen berri.

Zeintzuk dira ekintza kolektiboaren abantailak?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK


- Avoir des crédits, les caisses de solidarité, la possibilité d'être financé par les projets / Kredituak izatea, elkartasun-kutxak, proiektu bidez finantzatzeko aukera.
- Facilité d'accéder aux financements (GIE) - facilité de mener des Activités génératrice de revenus (AGR) + solidarité entre membres (AVEC) / Finantzamenduak eskuratzeko erraztasuna (interes ekonomikoko taldeak) - diru sarrerak eragiten dituzten jarduerak egiteko erraztasuna + kideen arteko elkartasuna.
- Entraide entre les femmes, accès au prêt, petit commerce / Emakumeen arteko laguntza, maileguetara sarbidea, saltoki txikiak.

JARRERAK

Ingurumena zaintzea

Ingurugiroa zaintzeko ekintzei dagokienez, honako erantzunak dira azpimarratzekoak: erantzunen % 65ek adierazi zuten basoberritzea izan dela egindako ekintza nagusia; % 23k hondakinen garbiketa eta kudeaketa azpimarratu zituzten; % 10ek lurzorua kontserbatzeko praktikak aipatu zituzten, adibidez, ongarri organikoen banaketa.

Zein dira ingurumena zaintzeko ekintza nagusiak?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Hygiène de la maison- plantation d'arbres fruitiers- gestion des eaux usées- préserver la santé des enfants / Etxeko higiena - fruta arbolak landatzea - ur zikinen kudeaketa - haurrak osasuntsu mantentzea.
- Recherche de pépinières- identifier l'espace adéquat- planter l'arbre et mettre du fumier organique- protéger l'arbre avec un grillage et des pics à l'abri des animaux domestiques et arroser / haztegiak bilatzea - espazio egokia identifikatzea - zuhaitza landatzea eta simaur organikoa jartzea - zuhaitza arantzadun burdin sare batekin inguratzea etxeko animaliangandik babesteko eta ureztatzea
- Plantation de bananiers, de nime et de moringa, plantation de citronniers, de mandariniers et de manguiers, papayer, acajoi, / platanondoak, nim arbolak eta moringa landatzea; limoiondoak, mandarinondoak, mangondoak eta papaiondoak landatzea; kaoba.
- Set Setoub (séance de nettoyage; foyers améliorés / Set Setoub (garbiketa saioa; sukalde hobetuak).


GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK

- Plantation arbres fruitiers dans la maison, plantation de manguiers, citronnier / Etxean fruta arbolak landatzea, mangondoak eta limoiondoak landatzea
- Fabrication de facines- cloture avec arbuste (sillane en wolof) pour les arbres contre le vent- plantation d'arbres fruitiers- je possède

un verger d'arbres fruitiers / sustraiak ekoiztea - zuhaixkekin (woloferaz sillane) itxiturak egitea zuhaitzak haizearengandik babesteko - fruta arbolak landatzea - fruta arbolen ortu bat dut.

Senideren bat ingurumena zaintzeko lanetan engaiatuta dagoen galdetuta, inkestatuen % 65ek baietz erantzun zuten eta % 35ek, berriz, adierazi zuten ez zeudela babes-lanetan inplikaturik.

Zure familiako kideren bat inplikaturik al dago ingurumena zaintzeko ekintzetan?




Bizirauteko estrategiak aldatzea

Bizirauteko estrategia gehienak ekintza konbinatuetan oinarritzen dira: erantzun zutenen % 41ek urtaroen kontrako nekazaritza-ekimenetan (baratzezaintza) ikusi zituzten beren estrategia aldaketa

nabarmenak, tartean zirela eguzki plaken bidezko ureztatze-sistemak eta simaur organikoen erabilera; % 21ek uste zuten merkataritza txikiko jardueri ekitea edo landa-exodoa zirela haien estrategia nagusiak elikagaiak erosteko baliabide gehiago lortzeko; inkestatutakoen % 17k haien strategiak abeltzaintza-sistema erresilienteago gisa definitu zituzten, egokituago dauden ahuntz eta ardi arrazak txertatuz, elikagai osagarriak erosiz, eta modu estentsiboan hazten ez zituzten oilaskoak haziz; horren zabaldua ez dauden beste estrategia batzuen artean daude fruta arbolak landatzea; laborantza soroak zabaltzea; elikadura-praktikak aldatzea menuan proteinak murriztuta; eta eguzki-energiaren erabilera.

¿Cuáles son las principales acciones de sus estrategias de subsistencia?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Nous avons fait beaucoup de changements, surtout pour l'arrosage et utilisation de l'énergie solaire / Aldaketa ugari egun ditugu, batez ere ureztatzeko eta eguzki-energia erabiltzeko.
- Fertilisation des sols par les matières organiques et végétales, Pour l'élevage nous essayons d'améliorer les races, L'élevage est très important surtout pour la fertilisation des sols / Lurrak ongarriztea materia organiko eta begetalen bidez, hazkuntzarako arrazak hobetzen saiatzen gara, hazkuntza oso garrantzitsua da, batez ere lurra ongarrizteko.
- Fabrication par nous même de l'aliment de la volaille de race à base d'aliment organique, laisser la volaille se nourrir d'insectes, mettre de l'eau glacée dans leur boisson pour qu'elle ne succombe pas à la chaleur / Guk geuk egiten dugu eskortako hegaztientzako elikagaia janari orgnaikoarekin, intsektuez elikatzen uzten diegu, izotzak jartzen dizkiegu edateko urean, beroak kolpatu ez ditzan.

GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK


- Installation de machines pour l'arrosage, utilisation d'engrais liquid / Ureztatzeko makinak instalatzea, ongarrri likidoak erabiltzea.
- Avoir de l'eau en permanence, pour exploiter d'autres cultures- maraichage- arbres fruitiers / Ura etengabe izatea, beste barietate batzuk ustiatzeko, baratzeakoak eta fruta arbolak, kasurako.

Diru-sarreren dibertsifikazioari dagokionez, galdetutakoen % 68k adierazi zuten fruta edo barazkien merkataritza txikian aritzen zirela; % 20k aipatu zuten txiten hazkuntzan eta abeltzaintzako beste jarduera batzuetan jarduten zirela; eta neurri txikiagoan aipatu zituzten garraio eta joskintza sektoreak.

Emakumeen papera eta honen bilakaera

Erantzun zuten pertsonen % 67k aipatu zuten emakumeek nekazaritzan (batez ere baratzezaintzan) eta tamaina txikiko abereen hazkuntzan duten rola handituz doala; eta % 33k azpimarratu zuten emakumeen bilakaera familia buru gisa eta familiaren dimentsio ekonomikoan duten rola handitzea.

Zeintzuk dira emakumeen rol berriak?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Dans l'agriculture les femmes jouent un grand rôle, mais elles se limitent à assister les hommes, elles ne sont pas propriétaires / Emakumeek eginkizun garrantzitsua dute nekazaritzan, baina gizonak laguntzera mugatzen dira, ez dira jabeak.
- Sur la plan de l'Agriculture: faible accès à la Terre- pêche: transformation de produits halieutique- maraichages- plus de ressources financières liées aux récoltes / Laborantzari dagokionez: lurrerako sarbide eskasa - Arrantza: arrantza produktuek eraldaketa - Baratzezintza: uztara bideratutako finantza baliabide gehiago.
- Plus de charges, elles sont plus actives que les hommes dans le domaine de l'agriculture / Emakumeentzako karga handiagoa, gizonak baino aktiboagoak dira nekazaritzan.
- Elles s'activent beaucoup dans l'agriculture de l'arachide et du niébé (seuls les hommes cultivent la pastèque) / Oso aktiboak dira kakahueteen eta baben hazkuntzan (soilik gizonak lantzen dituzte aingurriak)
- Le secteur primaire menacé par le CC, les femmes cherchent d'autres alternatives comme les poulaillers, les Unités de transformation, et les périmètres horticoles / Lehen sektorea klima-aldaketaren mehatxupearan dago, emakumeek beste aukera batzuk bilatzen dituzte, hala nola txitak haztea, eraldaketa unitateak eta baratzeak.

GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK

- Plus de responsabilités, elles sont vraiment actives, braves et aiment ce qu'elles font / Erantzukizun gehiago, oso aktiboak dira, ausartak, eta maite dute egiten dutena.

PRAKTIKAK

Zura eta ura jasotzea

Aurreko astean egurra edo ura jasotzera joan ote ziren galdetuta, erantzunak honakoak izan ziren: erantzun zutenen % 73k aitortu zuen normalean etxeko emakumeak, neskak edo beren semeen emazteak direla ur eta zur bila doazenak, eta horien artean % 76k onartu zuen familiako beste emakume batzuk arduratzen direla zeregin horietaz; eta % 24k aipatu zuen haiek egiten zituztela. Inkestatuen % 26k erantzun zuen gizonek eta emakumeek berdin egiten dituztela lan horiek.

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Moi et ma fille / Ni eta nire alaba.
- Moi en tant qu'épouse / Ni emazte gisa.
- Les femmes / Emakumeek.

GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK

- La femme et les enfants / Emakumeak eta haurrek.

Zuraren alternatiba nagusiei dagokienez, erantzun zutenen % 39k ikatza aipatu zuten (bitartekoak daudenean); % 31k butano-gasa; % 26k hobetutako sukaldeak (labe hobetuak) eta neurri txikiagoan animalien gorotzak aipatu zituzten.

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Nous préparons avec le bois de chauffe seulement / Berotzeko egurrarekin bakarrik prestatzen dugu.
- Gaz butane, charbon, foyer amélioré / butano-gasa, ikatza eta sukalde/labe hobetuak.

GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK

- Charbon de bois, gaz butane, foyer amélioré (fourneau jambar) / Egur-ikatza, butano-gasa, sukalde hobetuak (jambar labea).

Ordaindutako lana

Elkarrizketatutako pertsonen % 82k adierazi zuen azken astean ez zuela ordaindutako jarduerarik egin; gainerako % 18k adierazi zuen baietz, batez ere fruta- eta barazki-saltoki txikietan eta jornalari gisa zerbitzuak eskainiz.


EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Oui je cherche du pain pour le revendre / Bai, ogia bilatzen dut gero saltzeko.
- Commerce (vente de mil) / Salerosketa (artatxikia saltzea).

Praktika agroekologikoak

Inkestatutako pertsonen % 78k adierazi zuen ingurumena zaintzeko jarduera agroekologikorenbat egiten zuela; % 22k adierazi zuen ez zuela jarduera agroekologikorik egiten.


Egiten al duzu praktika agroekologikorik?



Aipatutako praktika agroekologikoetatik: % 53 lurzoruen kontserbazioan eta ongarri organikoaren ekoizpenean oinarritzen dira; egindako praktiken % 23k zuhaitzak landatzearekin eta basoberritzearekin lotura dute; adierazitako praktiken % 10 biopestizidak ekoiztea dira; praktiken % 8 abereentzako elikagaiak ekoiztean oinarritzen dira; neurri txikiagoan aipatutako beste praktika batzuk hobetutako sukaldeak erabiltzea eta biogasa ekoiztea dira.

Praktika agroekologikoetan aritzeko motibazioari dagokionez, hainbat faktorek bultzatzen dituzte jarduera horiek egitera; erantzunen % 47k basoberritzeari edo baratzeako produktuak saltzeari emandako pizgarrietan eta ordainsarrietan ikusten dute motibazio nagusia; erantzunen % 26k garbiketa komunitarioa borondatezkoa dela adierazi zuten; erantzunen % 15ek adierazi zuten sentsibilizazioa dela praktika agroekologikoak egiteko arrazoi nagusietako bat (zuhaitzak landatzea, esaterako); % 10ek aipatu zuten pertsona bakoitzak landatutako zuhaitzen hildako egurra ustiatzeko eskubidea bere familiarena dela, eta hori beste arrazoi bat dela.

Zein da praktika agroekologikoak egiteko motibazio nagusia?



EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Oui nous sommes payés la journée quand il y a une activité de reboisement et ça nous motive à travailler/ Bai, lanaldia ordaintzen digute basoberritze jarduera bat dagoenean eta horrek lan egitera animatzen gaitu.

Baratzezaintza

Azken urteetan baratzezaintzak izan duen bilakaeraren ezaugarri nagusiak errendimendu txikia (erantzunen % 66) eta landu daitezkeen lurren hedapena eta produktuen dibertsifikazioa (erantzunen % 33) dira..

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- De plus en plus de baisse de rendements / Gero eta nekazaritza etekin gutxiago.
- Augmentation des surfaces exploitées et diversification des produits / Ustiatzen diren azalera handitzea eta produktuak dibertsifikatzea.
- Les femmes assument la récolte et la commercialisation, les hommes l'utilisation des engrais / Emakumeak uzta jasotzeaz eta merkaturatzeaz arduratzen dira, gizonak ongarriak erabiltzeaz.

Abeltzaintza

Abeltzaintza-sistemek azken urteetan izan duten bilakaerari dagokionez, erantzunen % 50ek adierazi zuten abere- eta esne-ekoizpenaren errendimendua jaitsi egin dela azken urteetan, bazka-larrerik ez dagoelako; erantzunen % 25ek adierazi zuten ez dela bilakaerarik izan abeltzaintza-sistemetan; eta erantzunen % 25ek

elikadura-motaren bilakaera aipatu zuten.

Abere- eta esne-ekoizpenaren errendimendu jaitsiera Abeltzaintza eta Ekoizpen Saileko zerbitzuruak ere aipatu zuten, familiek ekoizten duten esne-bolumena batez ere kontsumorako erabiltzen dela adierazi zuten.

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Les femmes gèrent plus les poulaillers, Les hommes se concentrent à l'élevage de moutons / Emakumeak txitak hazteaz arduratzen dira gehiago, gizonak ardiak hazteaz.
- Les femmes cherche de quoi alimenter les bêtes, les hommes font rien. Ils sont au champ / Emakumeek ganaduarentzako elikagaiak bilatzen dituzte, gizonak ez dute deus egiten. Soroan egoten dira.
- C'est les femmes qui gèrent les troupeaux et c'est les hommes qui construisent les enclos / Emakumeek artaldeak kudeatzen dituzte eta gizonak ukiluak eraikitzen dituzte.
- Elles gèrent le bétail et les animaux au paturage, les hommes gèrent le bétail une fois à la maison / Emakumeek abereak eta bazka maneiatzen dituzte, gizonak abereak etxean eta ukiluan.
- Les femmes fabricant le propre aliment à base de matières organiques (oignon, poisson fumé, maïs, niébé, mil) déparasitage de la volaille avec de l'ail / Emakumeek ganaduarentzako elikagaia sortzen dute materia organikoekin (tipula, arrain ketua, artoa,

baba, artatxikia).

GIZONEN TESTIGANTZA BATZUK

- Alimentation du bétail avec les herbes qui poussent pendant la période sèche (espaces maraichers) / Abereentzako elikagaia garai lehorretan jasotako belarrekin.

Kakahuete hazkuntza

Kakahuetea ekoizten duten pertsonen artean % 68k adierazi zuten azken urteotan ekoizpena pixkanaka jaitsi dela klima-aldaketaren eraginaren ondorioz; % 32k esan zuten kakahuetea ekoizteko sistemetan ez dela bilakaerarik izan.

EMAKUMEEN TESTIGANTZA BATZUK

- Les femmes décortiquent les arachides, les hommes cultivent et commercialisent / Emakumeek kakahueteak zuritzen dituzte eta gizonak landatzen eta merkaturatzen dituzte.
- Les femmes désherbage et récolte, les hommes utilisation de machines pour la culture / Emakumeek belar txarrak kentzen dituzte, uzta biltzen dute eta gizonak makinak erabiltzen dituzte.
- Fertiliser les sols avec les matières organiques / Lurzoruak materia organikoekin ongarritzea.

MUGA METODOLOGIKOAK

- Eremu agroekologiko ezberdinetan erantzun desberdinak jaso ziren, FADEC bezalako kanpoko eragileen proiektuen eta programen hartzaile izan diren ala ez kontuan hartuta.
- Bestalde, heterogeneotasun handia nabari da inkestatzaileen transkripzioen kalitatearen artean, eta horrek, kasu batzuetan, zaildu egiten du emakumeek eta gizonak produkzio-jardueretan duten rola ulertzea.
- Betetako formulario gehienetan informazioa falta da, batez ere baliabideak eskuratzeko praktikei dagokionez (kreditua, lurra, sargaiak).
- Inkestako galdera batzuei erantzun asko eman zaizkionez, emaitzetako asko erantzunen % ikuspegitik aztertu behar izan dira, eta ez pertsonen % ikuspegitik.
- Etorkizuneko inkestei begira, egindako inkesta hobeto egokitu beharko litzateke kultura- eta gizarte-testuingurura, diagnostikorako tresna sendoagoa sortzeko; tresna hori oso erabilgarria eta egokia izan liteke proiektua identifikatu eta formulatzeko. EJP inkesta azterlana erakunde sustatzaileekin (NESI eta FADEC) partekatu zen landa-lanaren aurretik, eta, tokian bertan, lehen egunean lan-saio bat eskaini zen hura berrikusteko.

Klima-aldaketaren INPAKTUA GENERO-EKITATEAN, KEBEMER DEPARTAMENTUAN (SENEGAL)

V. ERANSKINA: KEBEMERREN INGURUMENERAKO ESKUBIDEA ETA GENERO EKITATEA SUSTATZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ETA ARINTZE NEURRIEN BILDUMA

V. ERANSKINA: KEBEMERREN INGURUMENERAKO ESKUBIDEA ETA GENERO EKITATEA SUSTATZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ETA ARINTZE NEURRIEN BILDUMA

Munduko Meteorologia Erakundeak (Munduko Meteorologia Erakundea -MME) 2022an⁽¹⁾ argitaratutako txostenaren arabera, honako hau aurreikusten da:

- Kalkuluen arabera, Afrikako estres hidriko handiak 250 milioi pertsonari eragiten dio, eta aurreikusten da 2030a baino lehen 700 milioi pertsona desplazatuta izango dela. Gainera, zaila izango da, hamarkada honen bukaerarako, Afrikako herrialdeen arteko bostetik lauk baliabide hidrikoak izaten jarraitzea eta modu jasangarrian kudeatzea.
- “Funtsezkotzat” jotzen da klima aldaketara egokitzeko inbertsioa handitzea, baita baliabide hidrikoek kudeaketa osoagoa izan dadin denen artean sustatzea.
- Afrikako tenperaturek $+0,3\text{ }^{\circ}\text{C}$ /hamarkada egin zuten gora 1991tik 2021era. Gorakada azkarragoa, beraz, 1961etik 1990erakoa baino, $+0,2\text{ }^{\circ}\text{C}$ /hamarkadako izan baitzen. 2021a Afrikan inoiz jasotako urte beroenen artean hirugarrena izan zen.
- Afrikako kostaldeetan itsasoek izan duten gorakada munduko batez bestekoa baino handiagoa da; batez ere, Itsaso Gorrian eta Indiako Ozeanoaren hego-mendebaldean. Azken horretan, urtean ia 4 mm egiten du gora. Seguruena, egoera ez da aldatuko datozen urteetan, eta horrek kostaldeko uholdeen maiztasuna eta larritasuna areagotuko du itsasoaren mailatik hurbil dauden hirietan. Horrez gain, lurpeko uren gazitasuna handitzea ere eragingo du, itsasoko urarekin nahastuko baitira. 2030erako, espero da Afrikan 108 milioi eta 116 milioi pertsona artean egongo direla itsasoaren mailak gora egitearen arriskupean.
- Afrika ekialdeko lehortek okerrera egin du. Izan ere, azken aldian euri gutxi egiteaz gain, gatazkak areagotu egin dira, eta baita horiei lotutako biztanleriaren desplazamenduak ere. Hori gutxi balitz, COVID-19aren ondoriozko murrizketek ere beraien eragina izan dute. Elikagaien prezioen gorakadak eskuraz ezin bihurtu zituen, eta 58 milioi pertsona baino gehiago geratu ziren “elikagaien segurtasun falta akutuan”.
- Kezka nagusiak bi dira: lehortek eta uholdeak. Azken 50 urteotan, milioi erdi pertsona baino gehiago hil dira lehorteei lotutako arriskuen eraginez, eta eskualdean 70.000 milioi dolar baino gehiagoko galera ekonomikoak eragin dituzte. Epe horretan, uholdeen ondoriozko 1000 hondamendi baino gehiago erregistratu dira, eta 20.000 pertsona baino gehiago hil dira. Kalkuluek diotenez, 2050erako klima aldaketaren inpaktuek 50.000 milioi

(1) Klima aldaketa Afrikan: alerta gorrian dagoen kontinenteko ingurugiro osasunak ONU Albisteak (un.org)

dolarreko galerak eragingo dizkiete Afrikako estatuei, urtean.

- Temperaturaren gorakadaren ondorioz, Afrikako nekazaritza produktibitateak % 34 egin du behera, 1961etik. Munduko beste ezein eskualdetan baino gehiago. Aurrera begira jarrita, joera bere horretan mantentzea espero da, eta, ondorioz, elikagaien segurtasun falta akutuaren eta malnutrizioaren mailak gora egitea. Mundu mailako tenperaturak 1,5 °C gora egitea espero da, eta, horren ondorioz, artoaren ekoizpena jaitea: % 9 mendebaldeko Afrikan, eta % 20 - % 60 artean Afrika hegoaldean eta iparraldean.

Azpimarratzekoa da beharrezkoa dela genero ikuspegia aintzat hartzea klima aldaketara egokitzeko eta horren ondorioak arintzeko orduan. Izan ere, FAO⁽²⁾k dioenaren arabera, klima aldaketaren ondorioak ez baitira soilik galera ekonomikoak. Oso kezagarria da esparru partikularrean klima aldaketaren ondorioek nolako gaitasuna duten genero desberdinkeriak areagotzeko. Halako egoerak, Kebemer gisako landa eremuetan, oso lotuta egon ohi dira biziraupen nekazaritzari, etxeetatik hurbileko eskala txikiko abeltzaintzari, eta baita inguruko ekosistemak eskaintzen dituen zerbitzuei ere: izan arrantzari, ur hornidurari eta uraren eta egurraren bilketari ere. Faktore horiek natura baliabideekiko mendekotasuna areagotu egiten dute, eta, beraz, inguru horiek izaten dira klima aldaketaren ondorioak gehien jasaten dituztenak.

Gauzak horrela, eta Kebemerren kasu aplikatua ikerketarako erreferentziatzat hartuta, datozen paragrafoetan aurkezten dira genero ekitateari buruzko jardunbide egokiak, hots, ingurumenerako

eskubidea sustatzen du. Eskubide horrek barne hartzen ditu batez besteko klima aldaketara egokitzeko eta horren ondorioak arintzeko neurriak. Neurri horiek Kebemerren (Senegal) eginiko esku hartzearen esperientzian jasotako datuetatik eratorri dira.

Azkenik, zenbait arintzeko eta egokitzeko neurri aipatu dira, etorkizuneko proiektuetan egin daitezkeen proposatzeko.

1. GENERO EKITATEARI DAGOKIONEZ

1.1 1.1 Genero indarkeriaren biktimen arreta

Emakumeen eskubideak eta indibidualki, komunitatean eta kolektiboki ahaldundu daitezkeen sustatzeko lana Emakumearen Etxean egiten da. Kër jiggéeñ ñi du izena eraikinak, eta 2019an zabaldu zituen ateak. Kebemer udalerraren irteeran dago, Saint-Louisera bidean. 1200 m²-ko azalera du.

Emakumearen Etxea elkargunea da emakumeentzat eta genero indarkeria jasan duten gazteentzat. Bertan, orientazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen zaie. Horrez gain, gizartea giza eskubideei buruz sentsibilizatzeko esparrua da.



Jarduera horiek egiteko, FADECek honako hauen bidez laguntzen du bere esku hartzea:

- Kebemerreko Association des Juristes Sénégalaisesek (AJS) proiektua lagundu du, giza eskubideei, genero indarkeriari, baliabideak eskuratzeari eta egoera zibilar buruzko prestakuntzak eskaini eta sentsibilizazio lana egin du.
- Kebemerreko emakume aktibisten sarearen xedea da emakumeei laguntzea, beraien eskubideak defendatzea eta gizarte zein ekonomia baldintzak hobetzea.

(2) Generoa eta klima aldaketara egokitzea | FAO

1.2 Estatuko instituzioetan eragiteko eta indarkeria prebenitzeko ekintzak.

Genero indarkeriaren departamentuko batzordearentzako prestakuntza. Esparru horri dagokionez, prozedura eragile estandarrak (PES) indartu dira, genero indarkeria jasan duten pertsonen laguntzeko protokoloen bidez.

1.3 Alfabetatze funtzionala lortzeko programa

Alfabetatze funtzionalaren xedea pertsona helduak, emakumeak, bereziki, alfabetatzea da. Emakumeek alfabetatze indize baxuagoak baitituzte, gizonen aldean. Programa horren bitartez, hezkuntza formalik jaso ez duten neskek eta emakumeek aukera dute irakurtzen, idazten eta eragiketa matematikoak egiten ikasteko. Ahalduntze indibidualerako programa horrek zenbait helburu dauzka: Kebemerreko emakumeek informaziorako eta jakintzarako eskubidea eta, batez ere, parte hartzeko eskubidea izatea. Hala, beraien gaitasunak eta konpetentziak hobetzeko eta beraien buruarengan konfiantza hartzeko, ondoren komunitatearen erdigunean koka daitezten. Modu horretan murrizten dira genero desberdinkeriak.

1.4 Baliabide Ekonomikoak Sortzeko Jarduerak - BESJ

Alfabetatze funtzionalaren osagarri gisa, diru sarrerak sortzeko

jardueretan parte hartzea sustatzen da, beraien inguru fisikoan, sozialean eta ekonomikoan aldaketa positiboak lortzeko asmoz. Jarduera horien artean daude oilategi komunitarioak eta zerealen eraldaketarako plataforma multifuntzional bat. Ekimen horiek komunitateetan sortzen dira, eta elikagai eta ekonomia segurtasuna indartzea dute xede.

Hegaztien ekoizpen komunitarioa

Ekimen hau martxan jartzeak komunitateek proteina osagarri gehiago kontsumitu ahal izatea eragin du, haragiaren eta arrautzen bidez. Horrez gain, ekoizpenaren soberakinak saldu egiten dituzte, eta emakumeen baliabide ekonomikoak areagotu egin dira.

Jasangarria dela bermatzeko, kudeaketa batzorde bat eratu zen, eta ekimenean parte hartzen duten pertsonen osatzen dute. Ezer martxan jarri baino lehen, kudeaketa batzordeko kideek prestakuntza jarduerak egin zituzten.

Plataforma multifuntzionalak (PTMF)

Zerealen PTFMak edo Zerealen Prozesamendu Unitateak (PU) ahalbidetzen du, gutxienez, bi modulu aldi berean martxan egotea eta moduluak bata bestearen ondoren martxan jarri ahal izatea, desmuntatu beharrik gabe.

PTFMa honako modulu hauek osatzen dute: azala kentzeko makina - artatxiki errota - kakahuete ehogailua - txigorgailua. Beste zenbait kasutan, prozesamendu unitate beregainak izaten dira, eta bakoitzak egiteko bat betetzen du.

Ekimen honek, zerealen balio katearen ekoizpen kostuak murriztu eta elikagai prozesatuen eskuragarritasuna handitzen ditu. Horrez gain, egiteko horiek betetzeko emakumeek egin beharreko lekualdatzearen denbora murriztu eta azken produktuaren kalitatea hobetzen du. Baratzezaintzan martxan jarri den beste BESJ bat deskribatzen da 2.3.1 puntuan.

1.5 Errotazio funtsak sortzea

Kreditu lerro horien xedea da ekoizpen ekonomikoko unitateak eta onuradunen ekimen pribatuak babestea da. Gehienez, Kebemer departamentuko emakumeak izan ohi dira.

Honako hauek dira, besteak beste, funts horien xedeak:

- Departamentuko emakumeen bizi baldintza ekonomiko eta sozialak hobetzea;
- Emakumeen jarduera ekonomikoak babestea;
- Emakumeen jarduera ekonomikoak sustatzea;
- Departamentuko emakumeen diru sarrerak hobetzea.

Funts horiei esker, parte hartzen duten emakumeek beraien jarduera ekonomikoen finantzazio beharrak ase ditzakete eta, hala, beraien bizi baldintzak nabarmen hobetu. Horrek burujabetza ekonomiko eta sozial erlatiboa dakarkie, baita komunitateko gaietan parte hartzea ere. Gainera, aldagai horrek eragin nabarmena du tokian tokiko

ekonomien eraketan.

Funts horiek martxan jartzeko orduan, mikrokredituei buruzko legeak oztopo bihurtu ziren. Izan ere, lege horiek ezartzen dute kredituen truke ordaindu beharreko interesen ehunekoa berdina dela guztientzat; beraz, egun Kebemerren ez dago interes baxuagoko kreditu lerrorik, ekoizpen ekimenenak hasia errazten duenik.

2. INGURUMENERAKO ESKUBIDEA SUSTATZEA

2.1 Uraren eskuragarritasuna

Uraren eskuragarritasunik eza Kebemer departamentuko arazoetako bat da. Bereziki larria da landa eremuko komunitateetan, ez dagoelako azpiegituren eta ur falta dagoelako. Azken hori areagotu egin da klima-aldaketaren eraginez. Ur azpiegiturek ezarri baino lehen erabiltzen zen ura zenbait putzu tradizioaletatik hartzen zen, baina putzu horietako ur kantitatea mugatua da eta kalitatea (gazitasuna eta burdina) ez da edateko ur izendatzeko nahikoa, higienari eta osasungarritasunari dagokionez.

Kantitateari eta kalitateari dagokionez uraren eskuragarritasunerako

eskubide unibertsala bermatzeko eraiki da ur hornikuntza sistema bat: azalean garatzen den zundaketa putzu bat egin da eta edateko ura banatzeko sare bat instalatu da. Sareak ponpaketa sistema, depositua eta banaketa sarea dauzka, eta honako udalerrri eta herri hauek hornitzen ditu urez:

Zk	Udalerrriak	Herriak
1	Ngandiouf y Ndande	Ndiakhere
2	Ngandiouf	Gati Gningue
3	Mbédiène	Por Cissé
4	Ngourane	Loyenne Sylla
5	Bandagne	Maka Ndiaye
6	Kébémér	Caïda de Ndiabi
7	Diokoul Diaw.	Gad Brama
8	Thieppe	El mismo Gaye
9	Ndande	Sherif Ka
10	Thieppe	Tebene
11	Thiolom	Ngoumbala
12	Thiolom	Kandala
13	Ngandiouf	Pallene
14	Ngourane	Tiékhène
15	Bandagne	Ndièye Séfour



Estatuak ASUFOR (Association des Usagers des Forages Ruraux) izeneko kudeaketa batzordeak eratu ditu, eta onuradunek osatzen dituzte. Instalazioen kudeaketa jasangarria eta eraginkorra izan dadin, estatuak ASUFOR (Association des Usagers des Forages Ruraux) izeneko kudeaketa batzordeak eratu ditu, eta hornikuntza sistemaren erabiltzaileek osatzen dituzte.

Edateko ura denentzat eskuragarri izateak herritarren osasun baldintzak hobetzen ditu. Hala, urari lotutako gaixotasunak murriztu egiten dira, hesteetako gaixotasunak eta beherakoak, esaterako. Era berean, nekazaritza ekimen iraunkorrak ezartzea ahalbidetu du (ikus 2.3.1), ezarritako laboreak ureztatzeko eurite garaiaren menpe baino ez baitaude.

2.2 Desertifikazioaren aurkako borroka

Kebemer departamentuko klimak eta nekazaritzak ezaugarri saheliarrak ditu: eguzkiaren irradiazioa gogorra da (8,5 ordu / egun); tenperatura beroak, 25,4°C batez beste urtean; prezipitazioak, 366 mm inguru. Eurite garaiak urtean lau edo bost hilabete irauten du. Lurra elkorra eta nahiko antzua da, eta, beraz, inguruko nekazaritzaren ekoizpena txikia da. Landarediak presio handia jasaten du gizakiaren aldetik, etxeko beharretara -elikagaiak egosi, adibidez- edo habitatean izan daitezkeen bestelako beharretara egokitzeko.


Desertifikazioa da Kebemer departamentuan kalteak eragiten ari den ingurumen arazo nagusia. Bertako komunitateen garapen ekonomikoa eta soziala larriki kaltetzen ditu; izan ere, ekoizpen jarduerak ezartzeko oztopo handia da, batez ere nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenari dagokienean. Horiek dira hain zuzen, bertako herri eta udalerrietako jarduera ekonomiko garrantzitsuenak.

Baso bitartekoak oso oinarri garrantzitsua dira departamentuko ekoizpen sektoreentzat. Basogintza sektorearen baitan biltzen dira basoberritzea eta lurraren kontserbazioa, egokitzea eta baso ekoizpenak, basoak babestea, faunaren eta bere habitataren kudeaketa eta tokiko herrietako biztanleen gaitasunak hobetzea.

Aipatu herriek su egurretik sortutako energiarekiko daukaten mendekotasun handiak hainbat ondorio ditu. Hauek azpimarratu beharko lirarteke:

- Ingurumen kalteak: biomasa etengabe ari da murrizten, zuhaitzen mozketak direla kausa.
- Osasun kalteak: bereziki emakumeei eragiten die, beraiek arnasten baitute elikagaiak prestatzerakoan sortutako ke gehien; arnas gaixotasunak eragiten dizkie.
- Denbora eta ongizatea: landa eremuko emakumeek denboraren zati handi bat ematen dute su egurra eta zuhaixkak bilatzen, etxerako erregai gisa erabiltzeko. Horrek, beraz, asko zailtzen die edo ezinezko bihurtzen die, jarduera estrategikoetan parte hartzea: prestakuntzak, informazioa eta garapen ekonomikoari, politikoari eta sozialari lotutako ekintza komunitarioak.

Zona de Niayes



Niayes inguruak duna eta sakonunez beteriko paisaia du, "Iparraldeko Kostalde Handia" deritzonean, Dakarren hasi eta Saint-Louiseraino. Kebemer departamentuaren mendebaldeko zati handi bat da inguru horren parte. Sakonune edo arro deritzoten horiek oso lur aberatsa dute, itsas brisaren ondoriozko tenperatura epelaren eraginez

Bertan, gehienbat, baratzeen laborantza egiten da. Sakoneraz bost metro baino gutxiagora dagoen geruza freatikoak eragiten du lurra hain aberatsa izatea.

Bertako biztanleriaren gehiengoa Peulak dira, artzain transhumanteak. Urtao lehorrean zehar, hots, azarotik uztaileira, Senegal barnealdetik etortzen diren langileen kolonia garrantzitsu bat bizi da bertan.

Testuinguru espezifikoko horren eraginez, Niayes oso inguru egokia da barazkien laborantzarako. Inguru horretan ekoizten da nazioko barazki eta lekale ekoizpenaren % 80. Hala ere, Niayes inguruan ere hainbat ingurumen arazo daude, eta bertako biztanleei eragiten diete. Urtez urte, inguru horretako publiometria balioak jaisten ari dira, eta lehorte luzeek geruza freatikoaren sakontasuna areagotzeaz gain, lurren gazitasuna ere handitzen ari da.

Hori gutxi balitz, inguru horretan haize lehorra eta beroa izan ohi da (harmattan), eta aurrez aipatutako lehortearen eragina areagotzen dute.

Ondorioak hauek dira:

- Baratze gisa erabiltzen diren sakonuneak haizeak dakarren hondarrak estaltzea;
- Bisel gazia handitzea edo ura agortzea, geruza freatikoa gehiegi ustiatzeagatik;

Egia da kostaldean zerranda berdea dagoela eta nolabaiteko babesa eskaintzen duela, hondarrezko dunak finkatzen baititu. Hala ere, ez da nahikoa higadura geldiarazteko.

Era berean, komenigarria da aipatzea gobernua 40ko hamarkadatik 90eko hamarkadara ahalegindu zela ingurua basoberritzen, fauna eta flora berreskuratu eta desertifikazioari aurre egiteko. 1948tik gaur egunera Ingurumen Ministerioaren Ur eta Baso Zerbitzuak itsas dunak eta barnealdeko dunak (kostaldean sortzen direnak) finkatzen ibili da. Horretarako, "Filao" izeneko Casuarina Esquisetfolia landatu du. Gaur egun, landare horiez osaturiko segurtasun gerriko paralelo bat dago, 200 metro zabal dena, hondartzen ondoan. Gerriko horrek kostaldeko dunak egonkortu ditu, baratze ekoizpena bermatzen du eta 120.000 pertsona bizi diren eskualdeko azpiegiturak babesten ditu.

Lompoul basamortuan, Nazioarteko Elkartasunak eta haren kide FADEC - Nord-ek dunak finkatzeko proiektu bat hasi zuten 2009an, baratzeak zeuzkaten sakonuneak babestea xede. "Filao" guneko

segurtasun gerrikoaren basoberritzea eta Harresi berde handia⁽³⁾ ekimen panafrikarra hartu ziren erreferentzia gisa.



Horretarako, bi hektareako haztegi bat sortu zen. Bertan, eukalipto eta akaziak landatu eta hazten dira, uztaileko lehen euriteen ondoren dunetan birlandatzeko prest dauden arte. Zuhaitzak ondo sustraitu daitezzen, oso garrantzitsua da landatzeko une egokia aukeratzea.



Eukalipto sailak hektareako 1.670 landareko dentsitatea du. Espezie hori, bertakoa ez den arren, dunetako baldintza gogorretara ondo egokitzen da -hondar mugikorrek eta urtean 200 mm - 300 mm prezipitazio artean. Dunetan, landareak Guer izeneko bertako zuhaixka lerroez babesten dira. Zuhaixka horiek dunen aurrerabidea geldiarazten dute, eta deskonposatzen direnean ongarri eta konpost bihurtzen dira. Gaur egun lanean ari dira basoberritzean espezie autoktono eta ez hain inbaditzaileak ere erabiltzeko.



Jarraian dunen finkatze prozesu bat azaltzen da. Prozesu hori dunak egonkortzeko egiten da, eta, kasu honetan, helburua bete da: 4 urteren buruan azalera landarez estali da.

(3) Harresi berde handia proiektuan Saharaz hegoaldeko 14 herrialde afrikarrek hartzen dute parte. Proiektuaren helburua da zuhaitzeko hesi baten bidez Saharak hedatzen jarrai dezan eragozte.

2009an basoberritzea hasi zenetik, 1.211,91 hektareako azalera landarez bete da; horretarako, 2.532.884 landare behar izan dira. Dunak egonkortu izanari esker, Peulak, tradizioan nomadak izan eta abeltzaintzatik bizi izan diren arren, errotu egin dira, eta nekazaritza ere bizimodu bihurtu dute, baratze txikien bidez. Ondorio ekologikoak dira, besteak beste, biomasa humus bihurtzen dela, karbonoa atxikitzen dela, haize babesa sortzen duela, higadura kontrolatzen dela eta arroetako baratzeak berreskuratzen direla.

Ekimena egin ahal izateko faktore garrantzitsuenetakoa izan zen bertako biztanleria zuzentzeko landatzeak ekarriko zituen onurez konbentzitzea. Jendea konbentzitu izanak ahalbidetu zuen biziraun ez zuten landareak berriz landatzea, ingurua babestea eta desertifikazioaren aurkako borroka.



Gaur egun natura bere kabuz eraberritzen da. Hots, landatutako zuhaitzen haziak lurrera erori, ernatu eta naturalki hazten dira. Hala, zuhaitz dentsitatea handitzen da, baita ekosistemaren onurak ere.



2.3 Ekoizpen sistema jasangarriak sustatzea

2.3.1 Baratzezaintza

Kebemer departamentuan nekazaritza tradizionala egiten da, eta urtaroen arabera da (neguko euriteen menpe dago). Horrez gain, lurra ere elkorra denez, laboreak ez dira emankorrak izaten. Azpimarratzekoa da gaur egun dunen behealdean egiten direla jarduera horiek. Horregatik, eta klimaren zein lurraren baldintzetara ahalik eta ondoen egokitzeko, ekoizpen estrategia berritzaileak erabiltzen hasi dira. Teknologia berriak erabiltzen dira eta baratzezainen gaitasunak garatzea sustatu da, honako hauen bidez:

Baratzeak ekipamenduz hornitu dituzte

Niayes, Lompoul eta departamentuaren barnealdeko beste herri batzuen inguruan egiten da lan. Baratzeetan ureztatze sistemak instalatu dira, tantakakoak, besteak beste.



Ekoizpen sistemaren hobekuntza horren xedeak hauek dira: batetik, klima aldaketara egokitzeko neurri gisa, baliabide naturalek jasaten duten presioa murriztea, uraren gain jartzen dena, batez ere; bestetik, elikadura burujabetza eta biztanleriaren diru sarrerak handitzea, emakumeenak bereziki.

Gaur egun, baratzeen ekoizpena ez dago guztiz euriaren menpe, eta horrek eskuragarri dauden elikagai kantitatea, kalitatea eta aniztasuna areagotzen du. Laboreak udan eta neguan hazten dira. Udan, esaterako, patatak, tomateak eta alberjiniak; neguan, aldiz, kakahueteak, zerealak (artaxikia, arrosa) eta patatak.

2.3.2 Hondakin solidoen kudeaketaren hobekuntza Gueoul udalerrian

Gueoulgo proiektuak bi helburu nagusi ditu: batetik, udalerrian ondo antolatutako, planifikatutako eta aplikatutako hondakinen kudeaketarako sistema bat ezartzea; bestetik, hondakin solidoen kudeaketaren esparruan lanpostu jasangarriak sortzea.

Klima-aldaketaren INPAKTUA GENERO-EKITATEAN, KEBEMER DEPARTAMENTUAN (SENEGAL)



2018tik martxan dagoen proiektuak honako hauek lortu ditu:

- Erakundeen baitan, indartu egin da hondakin solidoen kudeaketarako esparrua.
- Hondakin solidoen kudeaketa sistema bat ezarri da: bi Normalizatutako Bilketa Puntu eraiki dira; hondakinak biltzeko ekipamendua eta materiala erosi da; langileek prestakuntza eta

laguntza teknikoa jaso dute genero ikuspegia garbiketa zerbitzuan eta bide publikoaren garapenean txertatzeko;

- Gueoulgo herritarrek hondakin solidoen kudeaketa sistema komunala erabili ohi dute: IEC/CCC programak garatu eta aplikatzen dira.
- Hondakinak tratatzeko zentro bat eraiki da.
- Hondakinen eraldaketa unitateak egokitu dira ongarriak ekoizteko xedez.
- Biztanleria sentsibilizatzea lortu da, oro har.


2.3.4 Biogas programa

Biztanleriak egurrezko erregaiekiko mendekotasun handia du, baita, neurri txikiagoan, butano gasarena ere. Erregai horiek erabiltzeak kalte egiten die ingurumenari, osasunari eta biztanleriaren ongizateari eta, hori gutxi balitz, estatuko ekonomian ere eragiten dute. Biogas programa, beraz, klima aldaketaren ondorioak murrizteko neurria da.

Ekimen hori Biogas - PNBaren estatuko programaren parte da. Aipatu programaren bidez, 100 biodigestore ezarri dira Kebemerreko etxeetan, PNBaren osagarri. 8.000 biodigestore martxan jartzea da asmoa. Biogasaren alde egin da apustu, ohiko energia iturriak ordeztzeko, hots, egurra, ikatza eta butano gasa. Lehen biodigestore sorta zementuzkoa da.



Biodigestoreen bide eskuratzen diren azken produktuen artean azpimarragarrienak honako hauek dira: metano gasa -elikagaiak prestatzeko erabiltzen da-, elektrizitatea eta ongarri organiko likidoa zein solidoa.



3. GENERO IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA, KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO ETA HORREN ONDORIOAK ARINTZEKO EKIMENEN AURREIKUSPENA KEBEMERREN

Jarraian, etorkizunean martxan jarri nahi diren bi ekimen aurkeztu dira:

3.1 Lagundutako Basoberritze Naturala LBN.

Aurrez aipatu den gisan, basoberritze naturala landatutako zuhaitzen haziak lurrera erori, ernatu eta naturalki haztean datza. Hala, zuhaitz dentsitatea handitzen da eta ekosistemari on egiten dio.

Hizpide dugun kasuan, LBNren bidez, zeina bertako espezieen bidez egitea aurreikusten den, berritze prozesuari ko-laguntzea da asmoa. Izan ere, inguru horretako prezipitazio ezaugarrien, lurraren eta tenperaturaren eraginez, ezinbestekoa da zenbait ekintza espezifiko egitea espezie tasa anitzagoa izan dadin: ongarritzea eta urreztatzea, esaterako.

Jardunbidea horren bidez ingurunearen erresilientzia gaitasuna eta baldintzak aprobetxatzen dira bertako landare espezieak ezartzeko.

Ekimenaren metodologia parte hartzailea eta inklusiboa izango da.

3.2 Klimara Egokitutako Nekazaritza Jasangarria -KENJ.

Azkenik, bada aipatzeko moduko beste jardunbidea bat 2022az geroztik martxan Guinea-Konakryn. «Landa eremuko emakumeak aldaketarako agente gisa, Diari erdiguneko (Ginea) nekazaritza ekonomia jasangarriaren hazkunderan» izeneko proiektuaren bidez jarri zen martxan, eta etorkizun hurbilean Kebemerren ezarri nahi dute FADECek eta NESIk.

Proiektuaren xedea da ekintza klimatiko komunitario bat eraiki eta modu parte hartzailean martxan jartzea, genero ikuspegia eta giza eskubideen defentsa aintzat hartuta. Horrez gain, belaunaldiartekoa izan dadin nahi da. Horren guztiaren buru, landa eremuko emakumeak; ahaldunduta eta antolatuta, eta beraien eskubide ekonomiko, sozial eta politikoak erabiliko dituzte horretarako.

Elikagaien segurtasun falta egoeraz gain, dauzkaten bizibide prekarioak klima aldaketaren eta ingurumenaren degradazioaren eraginpean daudenez Diari erdiguneko emakumeek (etxe guztien artetik % 81en ordezkariak) tokiko alternatiba bat gidatuko dute. Ekimen aitzindaria izango da inguruan, landa garapen jasangarrikoa eta Klimara Egokitutako Nekazaritza Jasangarria (KENJ) oinarritzen dena. Tradiziozko jakintzek eta jakintza modernoek bat

egiten duten metodologia horretan, eta jardunbideak adostu eta tokiko baldintzetara egokituko dira. Hiru helburu izango dituzte: nekazaritzaren errendimendua hobetzea (produktibitatea), klima aldaketarekiko erresilientzia garatzea (egokitzapena) eta lurraren neutraltasun globala. Azken hori lortzeko, berotegi efektuko gasen tokiko emisioak murriztuko dituzte (arintzea).

Horretarako, honako hauek aurreikusten ditu proiektuak: batetik, emakumeen rol ekoizlearen balioa handitzea; bestetik, emakumeen arteko antolaketa indartzea, aldaketarako eta mundu mailako eragina duen ekintza klimatikorako mobilizazio agente gisa; azkenik, emakumeen parte hartzeko giza eskubidearen eta ingurumen osasungarrirako eskubide konstituzionalaren defentsan, emakumeen eragiteko gaitasuna hobetzea. Programa honek, aurrez aipatu gisan, Diariko gazte zein helduei egiten die dei emakumeen esanetara jarri eta ekintza klimatikoan parte hartzera.



Si!

Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional

Egoitza nagusia
Mirasol kondearen Kalea 7, behea
48003 Bilbo, Bizkaia

Tel. 944 792 258
solidaridad@sol-inter.org
www.solidaridadsi.org



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



ODSeando África
Avanzando por los Objetivos de Desarrollo
Sostenible de las mujeres en África

